



## TABIRAKO BAQUE ALAI, KANTXAK BETETZEN DABILEN SASKIBALOI TALDE BERRIA

Bazen garaia kirol egokitua Durangaldera heltzeko. Horixe diote Tabirako Baque Alairen entrenamenduen bueltan batzen diren guraso, jokalari, entrenatzaile eta enparauek.

Taldea maiatzean sortu zen eta partiduetan bete egiten dituzte harmailak / 2/3

## Azokarako ordua DA!

Gaur hasiko da 59. Durangoko Azoka, Ikasle Goizagaz; domekara arte iraungo du / 18



**Ruben Perez**  
Euskaltel-Euskadiko  
kirol zuzendaritzara  
batu da aurten / 20

 **HEGAN RENT**

Goitondo behekoa industrialdea, 1-1 partzela  
48269 Mallabia (Bizkaia)  
Tel.: 943 171 362

  administracion@alkideba.net · www.alkideba.net

Furgoneta alokairu  
zerbitzu berria!







Tabirako Baqué Alai taldea.

# Tabirako Baqué Alai, kirol talde bat baino gehiago

Kirol egokituko Durangaldeko lehenengo kirol taldea sortu zuten maiatzean, Tabirakoren aterkipean. 16tik 20 urtera arteko 15 gazte dabilta entrenatzen

**Jone Guenetxea** DURANGO

Hasi da entrenamendua eta jokariak urduri daude ANBOTO erreportajea egitera etorri delako institutuko kantzara. Joan zen domekan Durangon jokatu zuten partiduan harmailak bete egin ziren eta poz hura gogoan dutela erantzun diete galderei. Maiatzean sortu zuten Durangaldeko kirol egokituko lehenengo taldea, Tabirako Baqué Alai, eta ekimenak harrera ezin hobea izan du. BBK Saskibalo Ligan jokatzeko dute, Bizkaiko beste zortzi taldegez. Esti Ortuzarren alabak taldean jokatzeko du. "Institutuko bilera batean

irakasleek esan ziguten taldea sortzeko asmoa zutela, eta banekien nire alabak zalantzarik barik parte hartu gurako zuela. Durangaldean kirol egokituko talde bat izatea behar-beharrezkoa zen. Umeak pozez zorutzen daude", azaldu du Ortuzarrek. Inigo Uriarte ere taldeko gurasoa da. "Poz handia hartu genuen, guk dugun helburua eurek ikusgai egitea delako gizartearen aurrean, eta, bestalde, bultzada handia izan da euren autoestimurako", adierazi du Uriartek. Kirolaren inguruan sortzen diren balioek eta kirolek hara tagoko irakaspenek badute tal-

dea eta norbanakoak indartzeko gaitasuna. "Irrikan egoten dira entrenatzera etortzeko, eta galdezka ibiltzen dira ea asteburuan jokatu duten. Oso talde polita egin dute eta oso gustura dabilta", esan du Ortuzarrek. "Esperientzia hau guretzat ez ezik herriarentzat ere garrantzitsua dela uste dut", azpimarratu du Uriartek.

**Tabirakoren aterkipean**

Arantza Bilbao eta Esti Gerrikabeitia Fray Juan de Zumarraga institutuko Zereginen Ikas-kuntzarako Gelako irakasleek bultzatu dute taldearen sorrera.

Bilbaoren alabak Kurutziaga ikastolan ikasten du eta bere entrenatzaileek esan zioten gustatuko litzaiekeela saskibalo egokituko talde bat sortzea Durangon. Hurrengo pausoa Tabirakoren atea jotzea izan zen. Han ere, Durangoko saskibalo taldeak babes osoa eman zion egitasmoari. "Eurek saskibaloian jokatu gura zuten, baina Tabirakon izango zela esan genienean itzelean poztu ziren. Saskibaloian, eta gainera Tabirakon, herriko taldean", gogoratu du Bilbaok.

Tabirakorentzat taldearen sorrera "erronka handia" izan dela azaldu du Hilario Perez taldeko presidentek: "Proiektu honetan parte hartzea opari bat da. Saskibalo egokitua luzarorako etorri da Tabirakora eta Durangaldera. Gaurko entrenamenduan, oraintxe bertan, Maixak bere lehenengo saskiratzea egin du eta emozionatu egin gara denok. Maixak amari deitu dio lorpena kontatzeko".

Taldeak martxan dagoenetik, institutuan ere igarri dute aldaketa. "Talde sentsazioa indartu egin da, eta baita euren arteko elkarlana ere", azaldu du Esti Gerrikabeitia. "Saskibalo talde bat baino askoz gehiago da. Eurentzat asteburuero jokatzea itzela da. Honegaz guztiagaz gu ere asko disfrutatzen gabiltza. Sozializatzeko era bat

da eurentzat, hartu-emanak egiteko modua, lagun talde bat...", azpimarratu dute irakasleek.

Oskestra hau guzti hau zuzentzen duten lemazainak Maren eta Harbil Labrit dira. Ahizpa biak dira taldeko entrenatzaileak. "Oso esperientzia aberasgarria da. Epaile lanetan ezagutzen genuen liga hau. Ni neu oso pertsona lehiakorra naiz, baina hemen hori ez da existitzen. Partiduetan ikusten duzu denok berdinak garela eta ondo pasatzera gatzela", azpimarratu du Maren Labritek.

**Gidak laguntzaile**

Taldearen inguruan badaude euren aletxoak ipintzeko prest dauden laguntzaileak ere. Saskibaloian jokatzeko dute LH6ko Kurutziagako lau ikasleek gida lanak egiten dituzte, bai entrenamenduetan eta baita partiduetan ere. Malen Bilbao, Simone Urquijo, Izadi Ortuzar eta Sare Berriozabal dira jokariak kantzara bideratzen dituztenak, ezin hobeto bideratu ere.

**"ESPERIENTZIA HAU GURETZAT EZ EZIK HERRIARENTZAT ERE GARRANTZITSUA DELA USTE DUT"**



# "Jendea animatzera etortzea gustatzen zaigu"

**UXUE, ONINTZE, JOKIN ETA ELIAS** TABIRAKO BAQUE ALAIKO JOKALARIAK Tabirako Baque Alai Bizkaiko BBK Ligan jokatzen du. Gogotsu egoten dira norgehiagoken zain. Harmailetan geroago eta jarraitzaile gehiago dutela nabaritu dute



Uxue, Onintze, Jokin eta Elias.

**Jone Guenetxea** DURANGO Tabirako Baque Alai taldean, saskiratze bakoitza behar den moduan ospatzen dakite. Partiduetan ikustea baino ez dago. Lehiakortasunez barik, jai handi lez bizi dute kirola. Baina horrek ez du esan gura serio hartzen ez dutenik. BBK Ligako partaideak dira eta irabaztea ere gustatzen zaie, garrantzitsuena ez den arren. **Saskibaloian hasi zarete. Zelako esperientzia da?**

**Onintze:** Astean birritan entrenatzen gara eta domeketan partidua jokatzen ditugu. Oso pozik gabilta.

**Entrenamenduetan ondo?**

**Uxue:** Bai, denerik egiten dugu: paseak, saskiratzeak... Nire neba Tabirakon dabil eta guri laguntzera etortzen da martitzenetan.

**Zure neba Danelek aholkuak ematen dizkizu?**

**Uxue:** Niri askorik ez (barrez). **Elias, Danel zuri laguntzen ibiltzen dela ikusi dugu entrenamenduan. Igartzen da hobekuntza hori entrenamenduetan?**

**Elias:** Baloia saskiratzen ahalgintzen gara eta oraingo

entrenamendua ondo doa. Baina oso gatxa da!

**Jokin:** Eliasek altuera du onena saskibaloian jokatzeke.

**Pozik zabilzate saskibaloian jokatzen?**

**Elias:** Bai, Jokin laguna da eta elkarregaz talde berean jokatu gura genuen.

**Beste laguntzaile batzuk ere badituzue, lau hain zuzen ere. Ondo konpontzen zarete?**

**Jokin:** Bai, asko laguntzen digute. Partiduetan ere gugaz egoten dira jarraibideak ematen.

**Zuen partiduetan kantxa ikuslezu beterik egoten da. Jarraitzaile asko dituzue hain talde gaztea izateko.**

**Elias:** Hori ardura handia da. Jende mordo etortzen da, bai.

**Jokin:** Jendea etortzea oso ona da eta jendea gu animatzera etortzea asko gustatzen zaigu. Irakasleek ere babes handia ematen digute. Beti daude hori laguntzen.

**BBK Ligan jokatzen duzuen lehenengo urtea da. Zein da zuen erroka talde legez?**

**Elias:** Lehenengo postuan egotea gustatuko litzaiguke.



## Oraindik ez zara ANBOTOkoko whatsapp taldeko kide?

Durangaldeko azken albisteak jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp kanalera



Eskaneatu QR kodea

\* Izan zaitetz berriemaile ere. Bidali zure argazki eta bideoak

# AROA, euskara sustatzeko ekintza plana, onartu dute

Plana 2025etik 2028ra bitartean garatuko da eta 140 lan ekintza finkatzen ditu, zazpi esparrutan banatuta. EAJren, EH Bilduren, PSE-EEren eta Herriaren Eskubidearen aldeko botoekin onartu zuten AROA plana, azaroko osoko bilkuran. PP abstenitu egin zen

**Aitziber Basauri** DURANGO

Durango Udalak AROA plana onartu du, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. Egitasmoa Euskara Kontseiluak egindako lan-keraren eta hausnarketaren "emaitza zuzena" da. Udaberrik hona, herriko hainbat eragile, elkarte eta norbanakok parte hartu dute sortze prozesuan; planak oraintsu ikusi du argia. Bertan, lau urteetan garatzeko 140 lan ekintza identifikatu dituzte, zazpi esparrutan banatuta. Paule Sanchez Euskara zinegotziak azpimarratu duenez, euskara "Durango esparru guztietan sustatzeko bide berriak" zabalduko ditu planak.



Durango Euskara Kontseiluak ondu du AROA plana.

Aurreko euskara sustatzeko planetan ikasitakoak eta Euskara Kontseiluan identifikatutako erronka eta lehentasunak integratu dituzte AROA planean. Batetik, gazteen hizkuntza hautuan eragin gura dute, aisialdian eta kirolean euskararen erabilera sustatzeko. Bestetik, merkataritza-sektorean euskararen presentzia indartzea dute helburu, bai saltzaileei bai bezeroei zuzenduriko ekimenekin. Bestalde, etorkinak ere hurbildu gura dituzte euskarara, integrazio tresna lez ulertuta. Horretarako, jarduera zehatzak garatuko dituzte: euskara ikasteko ikastaroak, lehenengo hitza euskaraz egitera animatzeko kanpainak, eta euskararen erabilera sustatzeko teknologia eta komunikazio tresnen garapena. Sanchezek nabarmendu duenez, planak genero ikuspegia eta parte-hartze integrala bermatzen ditu, "tokiko errealitate guztiek lekua izan dezaten".

EAJk, EH Bilduk, PSE-EEK eta Herriaren Eskubideak babestu dute AROA. PP abstenitu egin zen.

## Kirolean euskara indartu guran

Durango Udalak kirolean euskararen erabilera sustatzeko materiala sortu du, Euskara Sailaren bitartez. Jolasak eta jarduerak prestatu, dip-tiko informatiboak egin eta Euskara Bagara kartela diseinatu dute, kirol klubek eta eskolek euskararen erabilera landu dezaten. Udalak Euskararen Nazioarteko Egunaren harira aurkeztu du ekimena.

Kirol klubek Barbaro elkartearen bulegoan jaso dute materiala. Hala ere, udalaren webgunean ere ipini dute materiala eskuragarri, deskargatu gura duenarentzat. Udalak "guztiz euskalduna den Durango baten alde elkarregaz aurrera egitera" deitu ditu kirol klubak, elkarteak eta herritarrak.

## Dendak Bai elkarteak AMARI Durango aurkeztu du

Herritarrak tokiko negozioekin "azkar eta erraz" konektatzeko diseinatu dute laguntzaile birtual berria

**A. Basauri** DURANGO

Dendak Bai elkarteak tokiko negozioei buruzko informazioa eskaintzen duen tresna digital berria aurkeztu du: AMARI Durango, adimen artifizialean oinarrituriko laguntzaile birtuala. Herritarrak tokiko negozioekin "azkar eta erraz" konektatzeko diseinaturiko baliabidea da eta 80 negozio baino gehiagori buruzko informazioa batzen du, askotariko sektore eta zerbitzuak batuta. We Are Clickers arduratu da garapen teknikoaz.

Alex Palacios Dendak Bai ko presidentearen berbetan, "negoziok ikusgarritasuna hobetzeko eta egungo informazio eskarretara egokitzearen premia-ri" erantzun gura dio AMARI Durango. Amamaren irudian inspiratutako laguntzaile birtuala WhatsApp bidez dago eskuragarri, 747 445 235 zenbakian



Aurkezpeneko irudi bat.

eta [www.dendakbai.eus](http://www.dendakbai.eus) atarian. Negozio gehiagotako informazioagaz "etengabe" elikatuko dute, "erosketa esperientzia hobetzeko". Helburua da "ehun komertzialaren aniztasuna eta aberastasuna islatuko duen informazio iturri izatea".

## Kaletik Gaztetxera dinamikak Gaztetearen beharra berretsi du

Gazteek negozioekin mahai bat eskatu dute, asanbladaren "kontrolpekoa" izango den espazio bat lortzeko

**A.B.** DURANGO

Orain urte bi Sorginola bota zutenetik, Gaztete baten aldeko mugimenduak Kaletik Gaztetearen dinamikaren barruan jarraitu du Durango. Orain, mugimendu horrek negozioekin mahai bat eratzea eskatu dio azken udalbatzarrari, "asanbladaren kontrolpekoa izango den eta udalaren interbentziarik izango ez duen espazio bat lortzeko". Izan ere, salatu dute udalak itxi egin duela asanbladaren antolatzearen "espazio bakarra".

"San Faustoetan inoizko Gazte Egunik jendetsuena antolatu genuen, ekintzen erdigunean gaztetearen beharrezan izan zuena. Ehunka gazte aldarrakatu zuten Durango gaztetearen behar duela", gogoratu dute dinamikako kideek. Hala ere, "gaztetearen aldeko borrokaren dimentsioa ikusita, udalak gazteen

interesaren alde borrokatzen den asanblada etengabe oztopatu eta eraso egin" diola esan dute.

### "Bizimodu itogarria"

Gazteen bizimodua "geroago eta itogarriagoa" dela esan dute Kaletik Gaztetearen kideek: "Ez dugu doako kirol eskaintzarik, aukera murriztak ditugu doako aisialdiaz gozatzeko, baliabiderik barik gaude interes artistikoak aurrera eramateko, eta geroago eta aukera gutxiago dugu emantzipatzeko". Eta haxe gaineratu dute: "Despolitizazioarako joera handia dago eta mezu erreazionarioak bidea egiten ari dira askoren artean. Ideia matxista, arrazista eta klasistek geroago eta pisu handiagoa dute". Horren aurrean, "aisialdi eredu berria" bultzatzen dute, "udalak bete ezin dezakeen hutsunea beteta".

## Durango zerbitzuak ezagutzeko bisita etorri berrientzat

**M.Z.** DURANGO

Durango Immigrazio Sailak herriko zerbitzuak ezagutarazteko bisita gidatuak antolatu ditu udalerrira bizitzera etorri direnentzat. Jardunaldia abenduaren 12an, eguena, egingo dute. Bisitan zehar aletuko dituzten gaien artean, errolatzea, osasun laguntza, enplegua, formakuntza eta egoitza baimenak daude. Bisita gidatua 10:30ean hasiko da eta izen-ematea 944 657 091 telefonora deituta egin beharko da. Abenduaren 12ko saioagaz, Immigrazio Sailak amaitutzat emango ditu aurten bisita gidatuak. Urtean zehar hiru egin dituzte: apirilean, ekainean eta urrian.

### Informazio gehigarria

Immigrazio Sailak gogoratu duenez, Durango Bizi gidak zazpi hizkuntzatan eskaintzen du arreta. [durangonbizi.net](http://durangonbizi.net) atariak gaiari buruzko informazio gehigarria eskaintzen die etorri berriei.



## Kriskitin eta Iruñeko Duguna dantza taldeak Durango

A.B. DURANGO

Durango Azokagaz bat eginez, Kriskitin dantza taldeak dantzaz eta musikaz bustiko ditu kaleak abenduaren 7an. Urteetako ohi-turari eutsiz, dantza erakustaldia egingo dute Landako Gunearen inguruan lehenengo, eta Ezkurdin gero.

Kriskitin dantza taldeak gonbidatuta, Iruñeko Duguna taldeko dantzari eta musikariek ere parte hartuko dute erakustaldian. Guztira, 80 dantzari baino gehiagok egingo dute dantzan. Jaizale Durangaldeko Txistulari elkarteak eta Nerea Zarandona soinu-joleak ere parte hartuko dute ekitaldian.

Abenduaren 7an izango da ekitaldia, zapatuan. Merkatu plazaren atzeko aldetik, dantzari eta musikariek Landako Gunerako bidea hartuko dute kalejiran, 12:00etan. Bertan erakustaldia egingo dute, Durango Azokagaz bat eginez. Ondoren, bigarren saio bat ere egingo dute, Ezkurdi plazan.

## Durango asteen isiotu dituzte gabonetako argiak

A.B. DURANGO

Gabonetako argiak isiotu dituzte Durango, gabon egunak ate joka diren seinale. Aurten, 65 arku apaingarri ipini dituzte kale nagusietan banatuta, eta, horien artean, udal ordezkariak Andra Mari kaleko zeru izartsua nabarmendu dute. Argiteria publikoagaz batera isiotuko dituzte gabonetako argiak, eta 02:00etan amatatuko dituzte. Urtarrilaren 6ra arte mantenduko dituzte.

Horrez gainera, abenduaren 9tik 18ra, udalak gabon giroko 24 elementu apaingarri ipiniko ditu herrian zehar. Tamaina askotariko kutxa eta arboleak apainduko dituzte kaleak. Horien artean, Ibaizabal parkean ipini duten kaxa handia eta Muruetorre auzoko 6 metroko gabonetako arbola nabarmendu dituzte udal ordezkariak.

Udalak 43.000 euro erabili ditu herriko kaleetan gabon giroa sortzeko argiztapen berezia eta apaingarriak ipintzeko.

## Iurretak 1,2 milioi izango ditu inbertsioetarako 2025ean

Inbertsioen atala %41 jaitsi arren, iazko soberakinen bidez aurre egin gura diete datorren urteko proiektuei

A.Basauri IURRETA

Iurretak 6,8 milioi euroko udal aurrekontua izango du 2025ean. Aurrekontu horrek "herritarren ongizatea eta bizi kalitatea hobetuko dituen proiektu garrantzitsuak" batzen ditu. Oskar Koka alkatearen berbetan, aurrekontu "orekatua" landu dute, gastua "arrazionalizatuz". Inbertsioen atala 400.000 euro ingurukoa izango da, iaz baino %41 gutxiago. Diru kopuru horri iazko jardunaldiko soberakina gehituta, 1,2 milioi euro bideratzea aurreikusiko du udalak; besteak beste,

Dantzari kalean, ikastetxeetan eta auzo bideetan irisgarritasuna hobetzeko, eta Garaizarren edateko ur-hornidura hobetzeko. Gainera, jolastoki inklusiboaren proiektuari ekingo diote Maiztegi eskolan (750.000 euro). Inbertsio hori diruzaintzako soberakinekin finantzatuko dute, 2024ko ekitaldia likidatu ondoren. Bestalde, kultur arlora 353.000 euro bideratuko dituzte, eta indartu egingo dute Gizarte Ongizateko partida. 115.000 euro Gizarte Ekintzarako gorde dituzte, eta 50.000 euro gehiago



Udalak irisgarritasuna hobetuko du Dantzari kalean.

Durangaldeko Mankomunitate-ara bideratuko dituzte, Etxeko Arreta Zerbitzua emateko; guztira, 150.000 euro. Udalak ekonomia "onbideratua" duela esan du alkateak.

Kontuak babestu arren, PSE-EEk uste du aurrerantzean lan egin beharra dagoela, eta Gizarte Ongizatea nabarmendu dute:

"Gastuen gorakada aurreikusten da eta ez dugu aukerarik izango inbertsioak egiteko". EH Bildu sozialistekin bat etorri da, eta gaineratu du bere proposamenetik "urrun" dagoela. EH Bildu prest agertu da Iurreta "erdigunean ipini" eta "lanketa sakon bat" izango duen aurrekontua lortzeko.



IURRETAKO UDALA

## Kristina Mardaras omendu dute

Kristina Mardarasek omenaldi beroa jaso du bere jaioterrian, Iurretan. Udalak eskertza adierazi gura izan dio herrian egin duen lanagaitik, eta ekitaldian, musika, bertsoak eta dantza uztartu zituzten. Ehunka iurretarren aurrean, Mardarasek oroi-garria eta lore sorta jaso zituen udal arduradunen eta Anderebideren eskutik.

## Iurretan merkatu solidarioa zabalduko dute abenduaren 9an

A.B. IURRETA

Iurretan merkatu solidarioa egingo dute datorren abenduaren 9tik 13ra bitartean. Anderebide emakumeen elkarteak antolatu du ekimena, eta hamargarren edizioa izango du aurtengoa.

Urtero legez, gabonen ataraiari antolatzen duten ekimen solidarioak Ibarretxe kultur etxea

izango du aterpe, eta bertaratzen denak askotariko objektuak eskuratzeko aukera izango du: jostailuak, bitxiak, arropa, dekorazio elementuak, sukaldeko tresnak... Azoka 09:00etatik 12:30era eta 16:30etik 19:30era egongo da zabalik. Egindako bost euroko erosketa bakoitzaren truke, otzara baten zozketarako zenbaki bat jasoko du erosleak. Antolatzaileek jakinarazi duteenez, zozketa urriaren 5ean egingo dute. Baturiko dirua JAED elkartearentzat izango da.



# EH Bildu eta EAJ ados Elorrioko aurrekontuetan

EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin onartu egin dituzte Elorrioko aurrekontuak; urteetako desadostasunen ondoren, alderdi biek "historikotzat" jo dute 2025eko aurrekontuak elkarren botoekin onartzea; ia 10 milioi euroko aurrekontua da

**A. M. ELORRIO**

Elorrion ia 10 milioi euroko aurrekontua onartu dute 2025erako; EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin onartu dituzte; Elkarrekin Podemosek, ostera, aurka bozkatu du. Urteak ziren alderdi biek adostasunik lortzen ez zutelara, eta alderdi bietako ordezkariak horren balioa nabarmendu dute. "Aurrekontu hauek elorriarren bizi kalitatea hobetzeko tresna dira", azaldu du Julene Lazkano EH Bilduko alkatea. Ildo horretatik, Elorrioko EAJk prentsa oharrean azaldu duenez, "akordio honek udal politika garai berri bat markatzen du".

Lehenengo urrats modura, kiroldegia berritzeko eta handitzeko proiektua idazten hasia adostu dute. Konpromisoak beste proiektu batzuk ere aurreikusten ditu, hala nola Kurutziazako biribilgunea eraikitzea edo San Pio kalea berrurbanizatzea; lan hauek bi milioi



Elorrioko osoko bilkura.

euro inguruko kostua izango dutenez, banku kreditu bidez finantzatuko dute. Bestalde, Elizalden eguzki plakak instalatzea jasotzen dute aurrekontuek. "Testuinguru sozialak zenbait arlotako gastuei ere eragiten die", argitu dute.

Bestalde, OPA plataformaren mozioa onartu dute. Hartara, udalak kopromisioa hartu du Elorrioko dagokion lan plantilla exijitzeko, eta Osakidetza eta euskal osasun publikoaren aldeko mobilizazioetan parte hartzeko, besteak beste.



Txiki Otaegi kalea.

## Txiki Otaegi kaleko lanek abenduaren 11ra arte iraungo dute Zornotzan

Txiki Otaegi kalea itxita egongo da lanek irauten duten bitartean; lanek 46.000 euroko ibertsioa dute

**A. M. ZORNOTZA**

Zornotzako Udala martxan ipini ditu Txiki Otaegi kaleko asfaltatze lanak; kalea osorik berriztuko dute, eta, horretarako, udalak 46.000 euroko inbertsioa egingo du. Lanek irauten duten bitartean, kalea itxita egongo da 08:30etik 17:00etara, inguruko garajeetako sartu-irtenetarako izan ezik. Udalaren esanetan, kalea osorik berriztuko dute, eta, horretarako, lehendik zegoen galtzada-harria kendu, azpioinarrria prestatu, eta, ondoren, inprimatutako asfaltatzea egingo dute; lan hauekin, zamalaneta-

rako eremua handitu egingo dute eta errepidea berriro margotuko dute, seinale egokiak ipintzeko.

Bestalde, udalak Zornotzako lehenengo kalistenia parkea zabaltu du, Jauregibarria auzoan; 20tik 28 urtera bitarteko gazteek ZUOK prozesu parte hartzailean egindako proposamenetarikoa bat ziren horrelako parkeak. Kanpoan ariketa fisikoa egiteko diseinatuta dago parkea, eta, besteak beste, indarra eta erresistentzia lantzeko aukera eskaintzen du, Zornotzako Udalak ohar batean adierazitakoaren arabera.

## Euskararen kale erabilerak 5 puntuko igoera izan du Berrizen

Euskararen Astea aurkezturiko datuen arabera, kaleko elkarrizketen herenak euskaraz dira Berrizen



Berriz.

**A. M. BERRIZ**

Euskararen Astea ospatzeagaz batera, Soziolinguistika Klusterra euskara biziberritzeko ikerketa Berrizen egindako ikerketaren emaitzak aurkeztu dituzte. Horien arabera, kaleko elkarrizketen herenak euskaraz dira, eta, 2009ko datuekin alderatuta, euskararen kale erabilerak 5 puntuko igoera (%33,1) izan du Berrizen; 2001ean, kaleko elkarrizketen %22,9 ziren euskaraz. Profilar dagokionez, euskara gehien erabiltzen dutenak heldu gazteak (%42,5) eta haurrak (%35,8) dira; ikerketa beraren arabera, gizonen baino emakume gehiagok erabiltzen dute euskara kalean. Klusterrak maiatzean eta ekainean egin zituen ikerketako neurraldiak. Emaitzak [www.soziolinguistika.eus](http://www.soziolinguistika.eus) atarian ikusi daitezke oso-osorik.

## Berrizek 7,34 milioi euroko aurrekontua izango du 2025ean

Berrizko Udalak auzoetako azpiegiturak hobetzea lehenetsi du; 620.000 euro inguru ditu inbertsioetarako

**A. M. BERRIZ**

Berrizek 7,34 milioi euroko aurrekontua izango du 2025ean, azken ekitaldikoa baino %5'65 handiagoa. Aurrekontu proposamenak gobernu taldearen aldeko botoak jaso zituen; EH Bilduk, ostera, aurka bozkatu zuen osoko bilkuran. Inbertsioen kapituluak 620.000 euro baino gehiago jaso dituzte. Udalak auzoko azpiegiturak hobetzea lehenetsi du, eta, horrela, Murgoitio Loitzate baserriko landa-bidea, Okango bidea eta Andikoako Zugatza baserriko bidea konpontzea au-

reikusitu du udal taldeak. Prozesu hau lizitatze fasean dago eta datorren urtean gauzatzea aurreikusten du udalak.

Beste herri batzuetan legez, zaborren biltzaile tasa hazi egin da Berrizen ere. "Orain arte, herri-tarrek zaborren zerbitzuaren zati bat ordaintzen zuten, baina aurrerantzean kostuaren %100 hartu beharko dute euren gain, Europaren agindua betetze aldera. Zaborren batze zerbitzua lizitatzen ari dira eta apiriletik aurrerako tasak behin betiko kostuaren arabera landuko dira".

Gorde erosketa-tiketa.



*Gabonetan*

# EZ IZAN TXORIBURU

Kontsumitu buruarekin  
Eta zalantzarik baduzu,

[kontsumobide.eus](https://kontsumobide.eus)



#KontsumitzenJakIn





# Izurtzan Nikolas Azoka egingo dute barikuan

Aurtengo aldiak hamabi bat postu batuko ditu pilotalekuko luze-zabalean. Urtero lez, oilasko pintxoak salduko dituzte plazan. Aurten, Angelman Sindromea elkarteak salduko ditu; bertan baturiko dirua elkartearentzat izango da

**Joseba Derteano** IZURTZA

Nikolas Azoka urteroko hitzordu bihurtu da Izurtzan. Urtero legez, abenduaren 6an egingo dute, bariku honetan, 10:00etatik 15:00ak arte.

Aurten hamabi bat postu egongo dira pilotalekuan. Postuetan denerik egongo da: ogia, gazta, barazkiak, etxeko jogurtak, ezti, txerriak, kontserbak, pateak... Euskal Herri osoko ekoizleak batuko dira.

Jan-edanerako aukera ere egongo da eguerdian, Eusko Labeleko oilasko pintxoekin. Hain zuzen ere, pintxo salmentan dago aurtengo nobedade nagusia. Ekinenaren ardura Angelman Sindromea elkarteak hartuko du, lehenengoz. Horrela, salmentagaz ateratako dirua elkartearentzat izango da. Aurten 2,5 euro izango da pintxo bakoitzaren prezioa.

Urtero legez, Izurtzan erroduta daudenek dohainik eskuratu dezakete mokadua. Tikitak udaletxean daude eskuragarri.



lazko azoka.

**Herriko jaietan ere barra**

Angelman Sindromea elkarteak lotura estua du Izurtzagaz. Herriko jaietan, Santa Ageda ermitako jai-egunean ipintzen den taberna elkarte honetako

kideek kudeatzen dute azkenengo urteetan. Horregaz batera, jaietako bigarren asteburuan plazaren inguruan egiten den jai eguneko barraren ardura ere euren izaten da.



Karlos Aretxabaleta euskal filologo eta idazlea da liburuaren egilea. GEURIA.EUS

## Egileak 'Izarrak eta Haitzak' liburua aurkeztuko du Amillen

Karlos Aretxabaleta idazleak bere azken lana aurkeztuko du, gaur arratsaldean, Arrazolako Amillen

**J.D. ATXONDO**

Amillenak eta Asuntze Mendi Taldeak *Izarrak eta Haitzak* liburuaren aurkezpena antolatuko dute gaurko —abenduak 5—. 19:00etan izango da, Arrazolako Amillen.

Karlos Aretxabaleta liburuaren idazlea bertan izango da eta liburuaren gaineko azalpenak emanango ditu. Aurkezpenak beste gonbidatu bat ere izango du gutxienez: Ruben Saenz eskalatazalea.

*Izarrak eta haitzak* liburuak mendiaren alderik gizatiarrena erakusten du, kirol lorpenetatik edo balentria pertsonaletatik

urrunduz. Bere pertsonaien ahotsen bitartez, egileak bere emozioak, beldurrak, ametsak, grinak, eta gatazkak transmititzen ditu. Liburuari bizia ematen dioten pertsonaien artean, Edurne Pasaban, Alex Txikon, Itziar Zabala, Alberto Iñurrategi, Ekaitz Maiz, Oihana Azkorbebeitia, Imanol Amundarain, Irati Anda eta Pou anaia daude, besteak beste. Hainbat narrazio estiloren bitartez, mendiarri, gazteriarri eta bizitzari buruzko esperientziak, pasadizoak, gogoetak eta sentimenduak aurkitu daitezke liburuan.

## Frontoia berriztatzea, Mañariko aurrekontuetako inbertsio bat

Auzobideak eta hilerria konpontzea eta kultura sustatzea dira 2025ari begirako beste inbertsio batzuk

**J.D. MAÑARIA**

Mañariko Udalak 2025. urterako aurrekontua onartu du, EH Bilduren aldeko hiru botogaz eta EAJren abstentzio bigaz. Hortaz, udalak 1.085.846 euroko aurrekontua izango du datorren urteko kudeaketa eta proiektuak aurrera eramateko, udalak ohar batean informatu duenez.

Frontoia berriztatzea, auzobideak eta hilerria konpontzea, eta kultura sustatzea izango dira udalaren lan ildo nagusiak. Kanposantuaren kasuan, udalaren aginduz, enpresa batek ikerke-

ta bat egingo du aurten, hilerriaren albo batean dauden pitzaduren jatorria zein den jakiteko. Ikerketa kontuan hartuta, datorren urtean hainbat konponketa egin gura dute hilerrian.

**2025EAN UDALAK 53.000 EURO ERABILIKO DITU HAINBAT ARLOTAKO EKINTZETARAKO**

Horrez gainera, Kirikiño kaleko trafikoa mantsotzeko neurriak hartzea izango da egin gura duten inbertsioetariko bat. Bestalde, ohiko diru laguntzak mantenduko dituzte: putzu septikoak berriztatu edo ipintzeko, alokairurako diru laguntzak, eta beste hainbat.

**Kultura sustatuz**

Udalak garrantzia ematen dio kultura sustatzeari, eta 2025ean 53.000 euro erabiliko ditu hainbat arlotako ekintzetarako. Ildo horretatik, udalak "ezinbestekotzat" jotzen du herriko elkarteen jarduna, herri "dinamikoa eta aktiboa" sustatzeko bidean. Azkenik, urte berriagaz, diru laguntzen partida handituko dutela ere iragarri dute udal ordezkariak, 60.000 euroguz.



Milioi bat eurotik gorako aurrekontua onartu zuten azken udalbatzarrean.





Sarera batu berri diren 15 erakundeetako ordezkariak, Mankomunitateko presidente Idoia Otaduygaz.



Egitasmora atxikituriko enpresek konpromisoa sinatu zuten.

# 15 erakunde gehiago batu dira Landuera, lan munduan euskara sustatzeko sarera

Gaur gaurkoz 38 dira enpresetan eta Lanbide Heziketako institutuetan euskara sustatzeko konpromisoa hartu duten Durangaldeko erakundeak. Sarera batu berri diren 15 kideek agiri bana sinatu zuten joan zen astean Elkartegian

Landuek, Durangaldean lan mundua euskalduntzeko sareak, hazkunde berri bat izan du. Kide berriak batu dira lantokietan euskara sustatzeko konpromisora. Honako hauek: Ibaizabal Ikastola, Gerediaga elkarteak, Bikain, Ona, Kultiba, Aisilan, Inforlur, Eiser, Eixu artisauen elkarteak, Urkilan, Macober, Delikatetxe, Oarbeaskoa Lantegia, Inmediobai eta Kirolene. Horiekin guztiekin 38 kidera igo da arlo sozioekonomikoan euskara sustatzeko sarea. Ibilbideko lehenengo harria 2021ean ezarri zutenetik, hazten joan da Landue, eta aurrera egiten jarraitu gura dute. Alde horretatik, egitasmoaren bultzatzaileek sarera batzeko gonbitea egin diete gainerako enpresei.

Egitasmoan esku hartzen duten lantokietako eta Lanbide Heziketa institutuak ordezkariak Elkartegian batu ziren

joan zen barikuan. Sarera batu berri diren 15 eragileek agiri bana sinatu zuten, bakoitzak beretik eta bere eremuan euskara sustatzeko konpromisoa hartuta. Arduradun politikoak ere bertan izan ziren, proiektuari babesa eta hauspoa ematera joanda. Besteak beste, honako hauek: Idoia Otaduy Mankomunitateko presidentea, Aitor Aldasoro Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Isaac Amezaga Bizkaiko Foru Aldundiko euskara zuzendaria, Durangoko alkate Mireia Elkoroiribe, Iu-

rretako alkate Oskar Koka eta Mañariko alkate Ainara Otxotorena. Ekitaldia AEKko Mertxe Mujikak gidatu zuen.

## Enpresarien hausnarketak

Agiria sinatzeaz eta konpromisoa hartzeaz gainera, bertan baturikoei hainbat hausnarketa partekatu zuten. Mikel Amiano Inforlur enpresako zuzendariak, adibidez, enpresako egunerokotasunean euskaraz dihardutela azaldu zuen. "Euskaraz gabiltza egunerokotasunean, eta helbide elektronikoei euskaraz erantzuten diegu, beste aldean dagoena euskalduna den ala ez jakin barik", azaldu du. "Bai Euskarari ziurtagiria daukagu, baina errealitatea bestelakoa da administrazioan. Administrazioan euskara baloratzen hasteko deia egin gura dut, euskaraz ez dakiten administrazioekin egin izan dugu eta

topo kasu askotan. Bai Eusko Jaurlaritzan, bai Bizkaiko Foru Aldundian, eta baita udaletan ere", aitortu du Amianok.

Ona enpresako Joseba Onaindia zuzendariak epe laburrean emango dituzten pausoen berri eman zuen: "Euskara txikia da eta denon laguntza behar du. Prest gaude erronka honi aurre egiteko. Euskaraldia badatorrela eta, batzorde bat sortu dugu, eta, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeaz gainera, Euskararen Astea ere ospatuko dugu. Euskaraldian banatu ohi diren antzerako txapak banatuko ditugu enpresan, hizkuntzaren erabilera areagotzeko", aurreratu zuek Onaindiak.

Bestalde, Lanbide Heziketako ordezkariak ere hartu zuten berba. Urko Belastegi Iurretako Lanbide Heziketako institutuko ikasle ohia da. Usansolotarra da bera, eta enpresa

berri txiki bat zabaldu du Lemoan. Bere praktikaldiak erakutsi dio bezeroekin euskaraz arituta distantziak murriztu egiten direla; bezeroek "asko eskertzen dute", esan du. Lier Arkarazok Maristak ikastetxean egin ditu ikasketak, eta bera da ikastetxe osoan praktikaldia euskaraz egitea eskatu duen kiderik bakarrenetarikoa. "Nire lagunetako inork ere ez du praktikaldia euskaraz egin. Nik euskaraz egitea erabaki nuen. Kaletik noala erdara nagusi dela ikusten dut. Publizitate iragarkietan, adibidez, erdara da nagusi. Baina bultzada behar duena euskara da. Horrenbestez, iragarki horiek alderantziz idatzita egon beharko lukete", iritzi zio. Iurretako Lanbide Heziketako Joseba Arregik azpimarratu zuenez, euskaraz eskaintzen dituzte Lanbide Heziketako eduki guztiak.



Landueko kideen eta instituzioetako kideen familia argazkia.

**PAREKO ERRONKARI  
AURRE EGITEKO  
PREST DAUDELA  
AZALDU ZUTEN  
BERTAN BATURIKOEK**




**anboto**  
kide



Anbotokideen  
txokoa

## ABENDUKO ZOZKETAK



**Hotel Balneario Areatzan** gau bat, logela bikoitza, gosaria eta zirkuitu termala bi lagunentzat.



**Basa Take Away** jatetxean gastatzeko 25 euroko bonua.



**Xiberu tabernan** bi gosari bikoitz. Zornotza.

**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



# Sagastako bideko lanak 2025eko proiektu nagusia

Azaroaren 26an osoko bilkura egin zuten eta bertan 2025eko udal aurrekontuak onartu zituzten. EH Bilduk eta Abadiño Independententek alde bozkatu zuten; EAJko kideak abstenitu egin ziren eta PSE-EEko zinegotziak kontra bozkatu zuten

### Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Abadiño Udalak 13.235.000 euroko aurrekontua onartu du 2025erako. "2025eko aurrekontuak lantzeko prozesua hile bikoia izan da. Batzordeetan, gainerako alderdi eta langileekin landutako prozesua", azaldu zuen joan zen asteko osoko bilkuran Unzalu Salterain EH Bilduko zinegotziak. Salterainek jakinarazi zuenez, udalak 400.000 euro erabiliko ditu inbertsioerarako, eta proiektu nagusienetarikoa Sagastako errepidea konpontzea izango da. "Lehenbailehen egin beharreko lana da", argitu zuen.

Bestalde, Astolako kiroldegiaren gaiari heltzea ere lehetsi zuen Salterainek: "Astolako kiroldegiak 600.000 euroko defizita du urtean, eta defizit horri heltzea lehenbaitzuzko lana izango da". Herritarrei kalitatezko zerbitzua eskaintzeko asmoz, udal zerbitzuak hobetu eta zaintza erdigunean



Abadiño osoko bilkura.

ipiniko dutela ere azpimarratu zuten osoko bilkuran.

Oposizioko taldeei dagokienez, EAJko kideak abstenitu egin ziren, "nahiz eta, neurri handi batean aurrekontuen alde egon". PSE-EEko zinegotzi Patxo Cam-

pok, ostera, aurrekontuen kontra bozkatu zuen. "Egia da aurrekontu hauetarako lan handia egin dela, baina zenbait puntugaz ez gaude ados; beraz, kontra egingo dugu", azaldu zuen.

## Mendi martxa euskararen alde Mallabian

### M.Z. MALLABIA

Mallabiko Gazte Asanbladak deituta, joan zen zapatuan mendi martxa egin zuten Mallabian. 30 bat lagun batu ziren gazteek egindako deialdira, eta mendi tontorrera 'Euskerie herri bat eraikitzeke tresnie' aldarria eraman zuten. Ondoren, giro paregabean, Trabakuan trikipotean ibili ziren.





# Basoak eta azpiegiturak lehenesteko norabidea

Garaiko Udalak 2025eko aurrekontuak onartu ditu, udalbatzako talde bien aldeko botoekin. Udalak 679.000 euroko diru poltsa izango du datorren urtea kudeatzeko. Herriko hainbat azpiegitura eta horniduratan hobekuntzak egitea aurreikusi dute

## Ekaitz Herrera GARAI

Garaiko Udalak prest du datorren urterako bide orria. Udalbatza osatzen duten alderdi politiko biek, EAJk eta Herriko Taldeak, 2025eko aurrekontuak onartu dituzte, aho batez: 679.660 euro izango dituzte datorren urtea kudeatzeko.

Batetik, herri bideetan areka berriak eraikitzea eta asfaltatze lanak egitea aurreikusi dute; ur-hornidurari dagokionez, kontrol tresnak ipiniko dituzte haren kalitatea bermatzeko. Bestetik, azken urteotako joerari eutsita, udalak baso-lurrak erosten jarraituko du. Gaur egun esku pribatueta dauden 50.000 metro karratu lursail publiko bihurtzeko pausoak ematea aurreikusi du. "Saso bateko basoak birsortzeko lanak indartzea" eta "espezieak dibertsifikatzea" gura dute, eta "etorkizunean, Garaiko Udalak baso ustiapenetik sarrera berriak izatea" ahalbidetu. Kirol ekipamenduari buruzko lanak



Garaiko udalbatza.

ere iragarri dituzte. Azpiegitura eraikitze fasean dago une honetan, eta udaberri partean zabalduko ditu ateak, "maiatzean edo ekainean". Hori dela eta, udalak kiroldegirako materiala erosiko du. Aurreikusitako beste jarduketa

batzuk honako hauek dira: Taxi Auzunea urte osoan martxan ipintzea, herriko elkarteentzako laguntzak indartzea, San Migelen komun publiko bat instalatzeko aukera aztertzea, eta Plan Orokorreko faseak garatzen jarraitzea.



Udal ordezkariak eta herriko merkatariak. ZALDIBARKO UDALA

## Merkataritza sustatzeko deskontu bonuak Zaldibarren

Gabonen atarian, udalak 10 euroko 700 deskontu bonu kaleratu eta herritarren eskura ipini ditu

### Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak merkataritza kanpaina hasi du asteon, gabonen atarian herriko establezimenduetako salerosketak sustatzeko aldera. 10 euroko 700 deskontu bonu kaleratu eta herritarren eskura ipini ditu. Txartelok udaletxean (goizez) eta liburutegian (arratsaldean) lortu ahal izango dira, agortzen diren arte. Honako hauek dira kanpainaren ezaugarriak: herritar bakoitzak bonu bakarra baino ezingo du erabili, eta txartelok ezingo dira janaria, edaria edo tabakoa erosteko

baliatu. Era berean, herritarrek 20 eurotik gorako erosketetan erabili ahal izango dituzte bonuok, betiere kanpainara atxikitako establezimenduetan. Hauek dira establezimenduak: Imendia, Egaña botika, Ertate, Maga Bebes, Maderlan, Pili ile-apaindegia, Eroski City, Olga bitxiak, Irantzu ile-apaindegia, Elisa Ilek ile-apaindegia, Ortuzar iturgintza, Gizadi fisioterapia, Zutitu zentroa-Ibon Padilla, Onaindi supermerkatua eta Aho Zaldibar. Zaldibarko Udalak 7.500 euro erabili ditu kanpainarako.

## Otxandion Gazte Txokoa zerbitzua ipini dute martxan

### A.B. OTXANDIO

Otxandioko Udalak Gazte Txokoa programa ipini du martxan, nerabeei zuzenduta. Hartara, gaztetxoek elkartzeko leku bat izango dute Mainondoko eskolako gimnasioan, barikuetan, 17:00etatik 19:00etara. DBHko 1. mailatik 4.era arteko gazteei zuzenduta dago zerbitzua, eta udaletxera joan behar dute izena ematera. Gazteei lasai eta seguru egoteko zein askotariko jarduerak (jolasak, tailerrak, filmak ikustea, txangoak antolatzea...) garatzeko toki bat eskaintzea du helburu udalak, "betiere euren beharrianak kontuan hartuta eta gazteen parte hartzean oinarrituta".

## Kalitatezko osasungintza eskatzeko mozioak udaletan

Zaldibarko, Elorrioko eta Durangoko udalek "egiazko osasun plantilla" ipintzea eskatu diote Jaurlearitziari

### E.H /A.B. DURANGALDEA

Osasungintza publikoagaz kezkatutako herritar eta plataformek mozioak aurkezten jarraitzen dute Durangaldeko udaletan, kalitatezko osasun sistema eskatzeko. Urri amaieran, Zaldibarren aurkeztu zuten adierazpena; azaro amaieran, Elorrioren; eta oraintsu, Durangon. Herri batean zein bestean, plataformek "premiakotzat eta lehentasunezko" jo dute osasun sistema publikoko mediku, osasun-langile eta administrari kopurua "izurriaren aurreko

egoerara" bueltatzea. Eta kezka hori udal ordezkarien aurrera eraman dute, hain zuzen ere.

Matias Oregi durangarrak, adibidez, DOPA Durango Osasun Publikoaren Alde plataformaren idatzia defendatu zuen udalerriko osoko bilkuran. Gogoratu zuenez, azken hiletan hainbat protesta eta mobilizazio egin da eskualdeko udalerrietan, osasungintza publikoagazko kezka kalera-etzeko: "Garain, Berrizen eta Zaldibarren medikurik barik egon dira, baita Izurtzan eta



Matias Oregi, eskuman, Durangoko osoko bilkuran mozioa aurkezten.

Mañarian ere. Abadiñon pediatra falta izan dute, eta Durangon hainbat bider medikuak falta izan dira larrialdi zerbitzua eskaintzeko". Oregik Eusko Jaurlearitziari eta Osakidetza-ri "egiazko" plantilla bat eskatze-

ra deitu zituen udal ordezkariak. EH Bilduk, PSE-EEK, Herriaren Eskubideak eta PPK babestu egin zuten DOPAk, Matias Oregiren bitartez, aurkezturiko mozioa. EAJk kontra bozkatu zuen.



## Sortzaileei omenaldia

Iurretako Txirrindulari Elkarteak ospakizun urtea du aurtengo. Elkar-teak 40 urte egin ditu eta otsailetik hona hainbat ekitaldi egin dute urteurren horren bueltan. Asteburu honetan bazkideen urteko bazkaria egin dute eta Iurretako Txirrindulari Elkartearen sortzaileak omentzeko baliatu dute.



IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA.

## DURANGALDEA ASTEON

### Baseri bideak konpontzeko lanak Zaldibarren

**ZALDIBAR** Zaldibarko Udalak baseri auzoetako errepideak konponduko ditu datozen egunetan. Zehazki, Goierri, Aranguren eta Gazaga auzoetan egingo ditu jarduketak; guztira, 2.300 metro kar-ratuko eremuan. Hobekuntza lanen aurrekontua 118.641,32 eurokoa da. Bizkaiko Foru Aldundiak 29.343,93 euroko ekarpena egin dio Zaldibarko Udalari, lanok gauzatzeko.



### Kale erakusketan ostu dutela salatu du EMEK

**ELORRIO** Elorrioko Merkatarri Elkar-teak salatu du lapurreta egin dietela zapatuan ipinitako erakusketan; erakusketaren bitartez, herriko bizitzan merkataritzak duen garrantzia irudikatu gura zuen elkar-teak. Elorrioren iraganean egon ziren eta orain itxita dauden establezimenduak gogoratzeko, establezimenduaren izena eta argazkia dituen identifikazio plaka eta led apliketa bana ipini zituzten erakusketan, negozio horiek egon ziren tokietan.



### Gaztainak eta taloak Abadiñon domekako azokan

**ABADIÑO** Hileko bigarren domekagaz batera hemen da Abadiñoko Azoka. Hilaren 8an Abadiñora bertaratzen direnek, gazta, ez-tia, ogia, ortuariak, esnekiak, kontserbak, txahal okela eta gozogintzako produktuak eskuratu ahal izango dituzte, besteak beste. Baita hainbat artisaren produktuak ere. Gainera, domekako azokan gaztaina saltzailea eta talogileak ere egongo dira.

## GUTUNAK

### Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - Iurreta**  
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:  
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



POLITIKAN

MARKEL LARRUSKAIN  
EH BILDU

## Elefantea gelan: Plateruena

Azoka ate joka dugun honetan, gai hau ekartzea bete-behar bat da kasi. Plateruena kafe antzokiak ateak itxi zituen duela ia 4 urte. Gaur arte egindako bidea gazia izan denik ez dut ukatuko. Ilusioa eta gogoaz bazeuden arren, gauzak ez dira amestu bezala joan. Askok izango dugu, nik badut behintzat, behar beste egin ez izanaren edo behar beste asmatu ez izanaren arantza barruan. Kulpa kristauak baina, ez du askorako balio, beraz, jar gaitezen aukerei begira. Eraikina hor dago eta hasieran zeuden baldintza asko mantentzen dira gaur egun. Udal gobernuak enpresa batek egin duen txosten bat aurkeztu du duela aste batzuk. Eraikinak ematen dituen aukerak azaltzen dira lan honetan; erabilera eta proiektu posibleak, horretarako egin beharreko hainbat konponketa eta instalazioen eraldaketak, besteak beste. Kudeaketaren inguruan, aldiz, argiak baino ilunak gehiago. Proiektua Durangon erroto behar da, ezin da Landako Gunea bezalako azpiegitura bat izan. Gainera, eraikin publikoak esku pribatuetan, inolako kontrolik gabe jartzen direnean badakigu zer gertatzen den. Forma juridiko ezberdinek izan dezakete lekua Plateruena, aurreko fasean ere izan zuten, baina nekez egin daiteke gisa honetako proiektu bat, herritarren parte hartze aktibo eta pertenezia sentimendu indartsurik barik. Gonbidapena egin nahi dizuet, Azokako fokuak itzaltzen direnean proiektu duin bat martxan jartzeko.

# anboto

Gertuko Koop S.,  
Gizarte EkimenekoaBixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 aleZuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.  
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.  
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.  
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.  
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.  
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.  
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILADEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



||| HARTZEA  
EMATEA DA |||

## 59. DURANGOKO AZOKA

2024ko abenduaren 5etik 8ra

### TALAI

#### ABENDUAK 5, EGUENA

##### IKASLE GOIZA

###### TALAI

**11:00** Badok musika ataria; irakasleentzako aukerak. Berbaldia (Ahotsenea Literatura).

**12:00** Pentsamendua gazte hizkeratik. Tailerra (Ahotsenea literatura).

###### TALAI - MUSEOA

**11:00** Nestor Basterretxea: collage-a eta diseinu grafikoa. Tailerra.

**12:30** Nestor Basterretxea: collage-a eta diseinu grafikoa. Tailerra.

**17:00** Herrigintza, militantzia, aktibismoa, krisian?! Badalab hizkuntza berrikuntzako laborategia + Euskalgintzaren Kontseilua + Jakin Fundazioa + TEKS Elkarte. Liburu aurkezpena.

#### ABENDUAK 6, BARIKUA

###### TALAI

**10:30** Euskarazko kulturgintzaren transmisioa hedabideetan: proposamen bat. Kultur Sorkuntzaren Transmisioa egitasmoa. Aurkezpena.

**11:00** Euskaraldiaren laugarren edizioaren kanta. Euskaraldia 2025. Aurkezpena.

**11:30** Goldatuz-Euskal abertzaletasunari buruzko gogoetak. Naziogintza Elkarte. Liburu aurkezpena.

**12:00** 'Zenbat dugun kontatzeko' mapa. Seaska. Aurkezpena.

**12:30** Ehun urteko gerra Palestinaren aurka. UEU. Liburu aurkezpena.

**13:00** Odolaren matxinadak. Gorputza, politika eta afektuak. EHU argitalpenak. Liburu aurkezpena.

**13:30** Euskadi Literatura saridunak: Aiora Jaka eta Jon Gerediaga. Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila. Mahai-ingurua.

**14:30** Euskal emakume idazleen literatura klasikoa. TZ testu zaharrak. Liburu aurkezpena.

###### TALAI - MUSEOA

**11:30** Neronek tirako nizkin / Alegiazko alegiak. TZ testu zaharrak. Liburu aurkezpenak.

**12:00** Klera. Kukai. Elkar. Egitasmo aurkezpena.

**12:30** Herri Urrats maketa lehiaketa eta abestia. Herri Urrats. Egitasmo aurkezpena.

**13:00** Euskal eskultura gaur. Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarte. Liburu aurkezpena.

**13:30** 'Literatura ibilian' Hegats 60. Euskal Idazleen Elkarte. Aurkezpena.

**16:30** Geure gorputzean eta etxean burujabe. Elkar. Liburu aurkezpena.

**17:00** Ilargia eta landareak agenda 2025. Argia. Aurkezpena.

**17:30** HAZIAK Zergatik eta nola egin zureak. Argia. Liburu aurkezpena.

**18:00** Orratz begia. 1936 Gipuzkoako gerra haurrak. Intxorta 1937 kultur elkarte. Liburu aurkezpena.

**18:30** 2000 del Winnipeg. Diario de a bordo. Intxorta 1937 kultur elkarte. Liburu aurkezpena.

**19:00** Talaia Feministaren I. dosierra aletzen. Talaia Feminista. Mahai-ingurua.



## TALAIA

## ABENDUAK 7, ZAPATUA

## TALAIA

- 10:30** Nestor Basterretxeari esker ona. Gerediaga Elkarte. Omenaldia.
- 11:00** Osasun Bakarra, jomuga eskuraezina. EHU Argitalpenak. Liburu aurkezpena.
- 11:30** Askatasun doinua. Zorrotz liburuak. Liburu aurkezpena.
- 12:00** Dabilen pentsamendua. Jakin Fundazioa. Mahai-ingurua.
- 13:00** Gazako egunerokoa. Elkar. Liburu aurkezpena.
- 13:30** Anjel Lertxundi: idazlea eta obra. EHU Argitalpenak. Liburu aurkezpena.
- 14:00** Arantzazu, hitz eta kantu: Iñaki eta Pello. Arantzazuko Edizio Frantziskotarrak. Liburu aurkezpena.
- 14:30** Hitz-irule. Hitz-irule. Egitasmo aurkezpena.
- 16:00** Liluraren kontra. Iratzar Fundazioa eta Txalaparta. Mahai-ingurua.
- 17:00** Kosmetikoak sendabelarrekin, zuk zeuk egitearen ederra. Argia. Liburu aurkezpena.
- 17:30** Ilargiaren egutegia 2025. Argia. Liburu aurkezpena.
- 18:00** Superbotereak. Hamar urrats eskola eraldatze bidean. Argia. Liburu aurkezpena.
- 18:30** 'Oneka, Iruñeko erresumaren sorrera' komikia. Nabarralde Fundazioa. Liburu aurkezpena.
- 19:00** Uztapide eta Xalbador. Bi adiskide mugaz gaindi. Erein argitaletxea. Mahai-ingurua.

## TALAIA - MUSEOA

- 11:30** Hik eta biok. Euskal Gaien Institutua-Deustuko Unibertsitatea. Mahai-ingurua.
- 12:30** Nestor Basterretxea: marrazkitik abiatutako sormena. Katrin Alberdi Egües. Berbaldia.
- 16:30** Hizkuntza gutxituen kultura egiten. GKE Suargi elkarte. Mahai-ingurua.
- 18:30** Europako idazleekin berbetan. Euskal Editoreen Elkarte. Mahai-ingurua.

## ABENDUAK 8, DOMEKA

## TALAIA

- 11:00** BaDAbil. Amets Arangurenen gidaritzapean, Amancay Gaztañaga, Beñat Sarasola eta Idoia Asurmendi. Zuzeneko podcasta.
- 12:00** Gako berrien bila: Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoa garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa. Euskaltzaindia. Liburu aurkezpena.
- 12:30** Tortura Arrasaten genero ikuspegitik. Intxorta 1937 kultur elkarte. Liburu aurkezpena.
- 13:00** Irati. Filmaren artea. Elkar. Liburu aurkezpena.
- 13:30** Korapilatu karta jolasa. Hezten Aisialdi Euskaltzalea Elkarte. Aurkezpena.
- 14:00** Gorputz txiki batean jaio nintzen. Mikel Uribelarrea Losa. Liburu aurkezpena.
- 14:30** Imago Vasconiae. Txalaparta. Liburu aurkezpena.
- 16:00** Gizarte Dialogikoa: Zientzialariek eta herritarrek atsegin eta erabiltzen duten soziologia. Bizi Ikerketa Taldea. Liburu aurkezpena.
- 16:30** Nazionalismoaren alde eta aurka. Elkar Liburu aurkezpena.
- 17:00** Antzinaroko sustrai indoeuroparreko jende izenak: Araba eta Nafarroako sartaldea. Euskaltzaindia. Liburu aurkezpena.
- 17:30** Iurretako berbeta eta literatura: Sator hegalaria. Pamiela. Solasaldia.

## TALAIA - MUSEOA

- 11:30** Sormen beka DA! Gerediaga elkarte eta Durangoko Udala. Sari ematea.
- 12:30** DA! Kartel baten historia. Euskal Irudigileak. Elkarriketa.
- 18:00** Euskal eskulturaren ikuspegi garaikidea. (Gaztelaniaz) Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarte.

## IRUDIENEA

## ABENDUAK 5, EGUENA

## IKASLE GOIZA

- 10:30** Eduki digitala euskaraz DA! Solasaldia (Areto handia).
- 10:30** Bideoklipa DA! Tailerra (Areto txikia)
- 13:15** Euskal kultura ulertzeko bideoak. Ikusgela. Emanaldi sorta.
- 14:00** Oreka. Javi Goya. Film emanaldia.
- 15:00** Baltoro oinez eta hegan. Mattin Iñiguez Ormazabal. Aurre-estreinaldia.
- 16:00** Errio. Ibon Gaztañazpi. Film emanaldia.
- 17:30** Momotxorroak - Kaos baten istorioa. Jon Eguskiza, Kepa Otaegi eta Andra Mari Dantza Taldea. Dokumentala.
- 18:30** Lau elementuak. Geuretik Sortuak. Arriguri "<3", Alba Lozano "Ütlandsk", Aitzol Saratxaga "Ehiza" eta Pette Etxebarria "Oigorri". Laburren emanaldi sorta.

## ABENDUAK 6, BARIKUA

- 11:00** Nire amaren etxea. Ane Berriotxo. Film emanaldia.
- 12:00** Bat, bi, hiru kanta. Igual lau. (#itsasoabidebakarra sessions). Ines Osinaga, Xerra Estudioa. Estreinaldia.
- 13:00** Hor Konpon. Jone Arriola. Film emanaldia.
- 13:30** GAZTE laburmetraDA!: Ardiek jakingo dute ( June Lasarte), Agur, Maria (Jone Aranberria) eta Goodbye Kepler (Nerea Ayala, Patricia Fañanás, David Modroño eta Iraia Yarto). Film laburren emanaldia.
- 15:00** Argizagi. Zubiak adiskidetasunerantz. Marramiau Sorkuntza Taldea. Estreinaldia (2023ko Sormen Beka DA!).
- 16:30** Dena asmatuta dago. Jone Arriola. Film emanaldia.
- 18:00** Dema S.A. sortzaile amateurren arteko dema. Euskarazko film laburren final handia. Lehiaketa.

## ABENDUAK 7, ZAPATUA

- 11:00** Errekatxo baten onduen. Markel Onaindia. Dokumentala.
- 12:30** Azken erromantikoak. David Pérez Sañudo. Film emanaldia.
- 14:30** Prosopagnosia. Ekain Martinez de Lizarduy Film emanaldia.
- 15:00** Ezki kontu-kontari. Leire Bereikua Barinagarmenteria eta Iban Gonzalez Pagaldai. Telesailaren aurkezpena.

- 16:00** Puzzleak, Bortxaketaren Jauregia. Kote Camacho eta anonimo bat. Film emanaldia.

- 16:30** Negu hurbilak. Negu kolektiboa. Film emanaldia.
- 18:30** Urak eginen du bide. June Agirre, Alex Altuna eta Oier Markotegi. Dokumentala.
- 19:30** LaburmetraDA!: Errotatiba (Iratxe Fresneda), Etorriko da (Izibene Oñederra), Exergo (Jorge Moneo) eta Phantasia (Jorge Moneo). Kimuak katalogoa. Film laburren emanaldia.

## ABENDUAK 8, DOMEKA

- 10:30** Itoitz, udako sesioak. Teaser emanaldia.
- 11:00** Kuxkuxtu: Parean, Ondoan, Elkarrekin. Arri Iraeta Irigarai. Dokumentala.
- 12:00** Irabazi arte. EITB. Aurrestreinaldia.
- 12:30** Loa eta Laia. Bizitzaren melodia. Josu Bergara, Paul Caballero, Paraxut produkzioak Aurrestreinaldia.
- 13:30** Marea Laranja. Haitz Mendibil eta Ekhi Mendibil. Film dokumentala.
- 15:00** Central Parkeko Heroiak (Familia zinema euskaraz). Zineuskadigaz elkarlanean. Film emanaldia (Areto handia).
- 15:30** Korrikalaris. Alejandra Bueno. Dokumentala.
- 16:30** Oinez. Leire Egaña. Dokumentala.
- 17:00** Foto Laso. Iban del Campo. Film emanaldia.
- 18:30** Ibaizabal ikastola: "25 urte geroa hezten". Bideo klip estreinaldia.



## GAZTE EZTANDA!

## ABENDUAK 6, BARIKUA

**14:00** Landako plazako karpa. Egin EztanDA! Lehiaketa (Izen ematea bertan egunean, **12:00**etatik aurrera, **15etik 25** urtera arteko gazteentzat) Gerediaga Elkarte eta EuskarAbentura

## KABI@

## ABENDUAK 5, EGUENA

## IKASLE GOIZA

**10:30** Gamer Gela. Game Erauntsia + Rolariak Topaketa.

**16:00** Gamer Gela. Game Erauntsia + Rolariak Topaketa.

## ABENDUAK 6, BARIKUA

**16:00** Adimen Artifizial sortzailea? Elhuyar. Mahai-ingurua.

**16:40** Torrekua - Teknologia libreak sortzeko, sustatzeko eta saretzeko sormen espazio komunitarioa. Torrekua ekimena. Egitasmo aurkezpena.

**17:00** Begizta. Izarkom + Onaro. Aurkezpena.

**17:30** Margo Piratak. Eider Eibar eta Iskander Sagarminaga. Egitasmo aurkezpena.

**17:50** Egin Ttap! Kukulaisi + Euskaltzaleen Topagunea. Topaketa.

**18:30** Erronka digitalak. Nola garatu erabilera kritikoa? Ikusgela eta Badalab. Mahai-ingurua.

**19:40** Leitzako hitanoa berpizten: Hika eta toka. Noka ere toka! Fernando Oartzun. Egitasmo aurkezpenak.

## SZENATOKIA

## ABENDUAK 5, EGUENA

## IKASLE GOIZA

**10:30** Antzerki sorkuntza partekatzen inprobisazioaz! Tailerra.

**19:00** "Hartzea ematea DA!" Gerediaga Elkarte. Inaugurazio ekitaldia.

## ABENDUAK 6, BARIKUA

**11:30** Hurrengo geltokia. Karrika Antzerki Taldea. Antzerkia.

**12:30** Putaren bakarrizketa eroetxean. Laura Penagos. Antzerkia.

**16:00** Hurrengo geltokia. Karrika Antzerki Taldea. Antzerkia.

**16:30** Putaren bakarrizketa eroetxean. Laura Penagos. Antzerkia.

**17:00** Ztandp, binakako bakarrizketa. Mirari Martiarena eta Idoia Torregerai. Bakarrizketa.

## ABENDUAK 7, ZAPATUA

**11:00** Odola. Las paralelas. Antzerki performatiboa.

**11:30** Hirurak telefonoari begira. Gehibat. Antzerkia.

**12:30** Ontziratuak. Libe Mendizabal eta Zalao Zamarreño. Antzerkia.

**16:00** Hirurak telefonoari begira. Gehibat. Antzerkia.

**16:30** Odola. Las Paralelas. Antzerki performatiboa.

**16:30** Hirurak telefonoari begira. Gehibat. Antzerkia.

**17:00** Ontziratuak. Libe Mendizabal eta Zalao Zamarreño. Antzerkia.

## ABENDUAK 8, DOMEKA

**11:00** Fikziohesioa. Kalte kolektiboa. Antzerkia.

**12:30** Ez mundu berri bat. Makur antzerkia. Antzerkia.

**13:00** The Question. Ganso & Cia. Antzerkia.

**16:00** Zori-ona. Adiera. Dantza.

**16:30** The Question. Ganso & Cia. Antzerkia.

**17:00** Fikziohesioa. Kalte kolektiboa. Antzerkia.



# AHOTSENEA

## ABENDUAK 5, EGUENA

### IKASLE GOIZA

#### AHOTSENEA LITERATURA

- 11:00** Badok musika ataria; irakasleentzako aukerak. Solasaldia.
- 12:00** Pentsamendua gazte hizkeratik. Tailerra.
- 16:00** Euri gorriaren azpian. Asier Serrano. Liburu aurkezpina.
- 16:30** Kepa Anabitarte. Eneko Bidegain. Liburu aurkezpina.
- 17:00** Iñaki Perurena. Harria bidelagun. Fermin Erbiti. Liburu aurkezpina.
- 17:30** Herriaren hezkuntza eta demokrazia. Nadezhda Krupskaia. Liburu aurkezpina.
- 18:00** Zapalduon pedagogia. Ane Ablanedo. Liburu aurkezpina.
- 18:30** Gurpilak. Eztizen Artola. Liburu aurkezpina.
- 19:00** Aberriaren inpaseak. Joseba Zulaika. Liburu aurkezpina.
- 19:30** Harrizko errementariak. Itzalen Dama eta Patxi Bakallu. Liburu aurkezpina.

#### AHOTSENEA MUSIKA

- 10:30** Popperra, Afterra, Utopia. Emanaldia.
- 15:40** Birkit. Erosen heriotzak.
- 16:50** Eneritz Furyak. HHH.
- 18:00** Postal kolezionistak. Ezusteko kantak: errinozerontea.
- 19:10** Aho zakil konexio. Amaiur.
- 20:20** Ameba. Munduari.
- 21:30** EIDER. Nola aldatu gara?

## ABENDUAK 6, BARIKUA

#### AHOTSENEA LITERATURA

- 11:00** Hiri gerra Palestinan. Eyal Weizman. Liburu aurkezpina.
- 11:30** Egunen akabera. Garazi Albizua. Liburu aurkezpina.
- 12:00** Hetero. Uxue Alberdi. Liburu aurkezpina.
- 12:30** Idazketa labana da. Annie Ernaux. Itz: Leire Lakasta. Liburu aurkezpina.
- 13:00** Murmur. Ane Labaka eta Raquel Samitier. Liburu aurkezpina.
- 13:30** Bisita. Mikel Pagadi. Liburu aurkezpina.
- 14:00** Irakurketaren aldeko manifestua. Irene Vallejo eta Fernando Rey. Liburu aurkezpina.
- 16:00** Lehendakariaren alaba. Iñaki Petxarroman. Liburu aurkezpina.
- 16:30** Itsaso Amniotikoa. Oihane Jaka. Liburu aurkezpina.
- 17:00** Puntobobo. Itxaso Martin. Liburu aurkezpina.
- 17:30** Epilogorik gabe. Elena Sanchez. Liburu aurkezpina.
- 18:00** Pleibak. Miren Amuriza. Liburu aurkezpina.
- 18:30** Lima. Konjuruliburua. Miren Gorrotxategi. Liburu aurkezpina.
- 19:00** Denboraren zubia. Iñaki Iturain. Liburu aurkezpina.
- 19:30** Zenbaki gorriak. Jon Arretxe. Liburu aurkezpina.

#### AHOTSENEA MUSIKA

- 11:00** Ainke. 10 gezur eta hiru litro.
- 12:10** Mikel Artieda eta Leire Berasaluze. Miretsiz.
- 13:20** Maskak. Buruz buru.
- 14:30** Nize. Gaur ez naiz.
- 15:40** Zinkha. Gau hartan.
- 16:50** Mirari. Mundu berria.
- 18:00** Albina Stardust. Izar.
- 19:10** Kai Nakai. Gau pasa.
- 20:20** Hok Ttuk Amalau. Lendabisico EP-a.
- 21:30** Xsakara. Ilargiaren semea.

## ABENDUAK 7, ZAPATUA

#### AHOTSENEA LITERATURA

- 11:00** Anastasini zirkua. Malen Amenabar eta Miren Amuriza. Liburu aurkezpina.
- 11:30** Euskal Herriko greba feministak: diskurtsoaren analisisa feminismo materialistatik. Uma Ulazia. Liburu aurkezpina.
- 12:00** Politeismo bastarta. Jule Goikoetxea. Liburu aurkezpina.
- 12:30** Idaztea gibelerara zenbatzen ikastea da. Hasier Larretxea. Liburu aurkezpina.
- 13:00** Gu. Tupust. Liburu aurkezpina.
- 13:30** Ezer ez dago utzi nuen lekuan. Itziar Otegi. Liburu aurkezpina.
- 14:00** Kurdistan + 100. Kiera Handerson. Liburu aurkezpina.
- 16:00** Mendeku eskubidea. Ernesto Prat. Liburu aurkezpina.
- 16:30** Coca-cola bat zurekin. Beñat Sarasola. Liburu aurkezpina.
- 17:00** Basokoa. Izaskun Gracia. Liburu aurkezpina.
- 17:30** Botere handi batek. Iban Zaldúa eta Julen Ribas. Liburu aurkezpina.
- 18:00** Bihotz-museo bat. Leire Vargas. Liburu aurkezpina.
- 18:30** Zebrak eta bideak. Nerea Loiola. Liburu aurkezpina.
- 19:00** Bernart Etxepare 1545. Danserie Ensemble. Disko aurkezpina.
- 19:30** Etxauz. Pantzo Hirigai. Liburu aurkezpina.

#### AHOTSENEA MUSIKA

- 11:00** Orhi. Izarrik ez.
- 12:10** Zinkha. Gau hartan.
- 13:20** Ekhi Lambert & Haize Carricaburu. Inbasioak.
- 14:30** Kokein. Bidea da helmuga.
- 15:40** Txopet. Ostabe zuloan.
- 17:20** Neu Troia. Arriskuaren xarma.
- 18:00** Kaskezur. Deus.
- 19:10** TOC. Ametsen batean.
- 20:20** Ezpalak. Gatza.
- 21:30** Odei Barroso eta Benizze. Badok 15 urte.
- 22:30** Mugarik gabe – Bê Sinôr. GKE Suargi elkarte eta Berria.

## ABENDUAK 8, DOMEKA

#### AHOTSENEA LITERATURA

- 11:00** Josefa neskame. Alaitz Melgar. Liburu aurkezpina.
- 11:30** Biharraren hegietan. Maddi Sarasua. Liburu aurkezpina.
- 12:00** Munduko Poesia Kaierak. Anne Hebert, Giorgos Seferis, Manuel Vazquez Montalban, Jacques Prevert. Liburu aurkezpina.
- 12:30** Ganbila bilduma: Ximun Fuchs 'Lurrez estali', Lutxo Egia 'Guardasol gorria', Mikel Ayllon 'Hau ez da gerra bat', eta Pablo Barrio '2074'. Liburu aurkezpina.
- 13:00** Puf. Alaia Martin. Liburu aurkezpina.
- 13:30** Martin Martina. Amancay Gaztañaga. Liburu aurkezpina.
- 14:00** Masusta-erreximenta. Ekaitz Bergaretxe. Liburu aurkezpina.
- 16:00** Azken portuko postdatak. Asel Luzarraga eta John Andueza. Liburu aurkezpina.
- 16:30** Elkanoren herriari bueltaka. Julen Gabiria eta Ander Izagirre. Liburu aurkezpina.
- 17:00** Ez-izan. Jon K. Sanchez. Liburu aurkezpina.
- 17:30** London Calling. Goio Ramos. Liburu aurkezpina.

#### AHOTSENEA MUSIKA

- 11:00** Xabaltx. Norabide xuriak.
- 12:00** Saji. Amuak.
- 13:20** Kuartz. III
- 14:30** Xabier Badiola. Xabier Badiola.
- 15:40** Tu-k. Tuka esaten da.
- 16:50** Keia. Zamalanak.
- 18:00** Ander Erzilla. Durundi.
- 19:10** Miriam Lujua. Lur.



## SAGUGANBARA

## ABENDUAK 5, EGUENA

## IKASLE GOIZA

**10:15 Txoriak txori collage-a.** Tailerra.

**11:30 Txoriak txori collage-a.** Tailerra.

**15:15 Abentura erraldoia. Salba dezagun kalejira.** Argia. Liburu aurkezpena.

**16:30 Kokoak.** Pamiela. Liburu aurkezpena.

**17:30 Iratxoak eta gabon magikoak.** Mezulari. Ipuin aurkezpena.

**18:30 Gau Beltza. Oriar jauregiko misterioa.** Tailerra.

## ABENDUAK 6, BARIKUA

**11:30 Argizagi. Zubiak adiskidetasunerantz.** Marramiau Sorkuntza Taldea. Estreinaldia (2023ko Sormen Beka DA!).

**13:00 Gutunak birramamari.** Denonartean. Liburu aurkezpena.

**14:00 Zerua lapurtu dute!** Katxiporreta. Liburu aurkezpena. (Gonbidapenak 10:30etik aurrera banatuko dira, Saguganbarako atean)

**16:00 Liburua.** 1545 argitaletxea. Liburu aurkezpena.

**16:30 Maritxiki eta Burumalo.** Denonartean. Liburu aurkezpena.

**17:30 Baga Biga Higa.** Pamiela. Liburu aurkezpena.

## ABENDUAK 7, ZAPATUA

**11:00 Ene Kantak Dantzan.** Ikuskizuna (kanpoko karpan).

**12:10 Lo-kantak.** Elkar. Liburu aurkezpena.

**13:00 Itsaso gazian.** Pamiela-kalandraka. Liburu aurkezpena.

**15:00 Amestoki goxoa.** Ikas. Liburu aurkezpena.

**15:30 Lainozko krema.** Denonartean. Liburu aurkezpena.

**17:00 Itsaso bete urre.** Txalaparta. Liburu aurkezpena eta ipuin kontaketa.

**18:00 Baziren behin... hiru ipuin.** Elkar. Liburu aurkezpena.

## ABENDUAK 8, DOMEKA

**10:30 Zapatekin arnas. Potx eta Lotx eta Alaia Martin.** Liburu aurkezpena eta ikuskizuna (kanpoko karpan).

**12:00 Lamiak eta emagina.** Denonartean. Liburu aurkezpena eta kontaketa marraztua.

**13:00 Mamuki.** Pamiela. Liburu aurkezpena.

**14:00 Txanogorretxu.** Zeinu ipurtargia. Ipuin kontaketa.

**16:00 Txalopin Txalo. Durangaldeko Mankomunitatea eta Enrique Morente.** Liburu aurkezpena.

## DURANGO +

## ABENDUAK 5, EGUENA

**10:00 Gymkhana: digitalizazioa jokoan.** Tailerra (Bizenta Mogel Biblioteka).

**10:30 BerPiztu ordenagailu zaharra.** Tailerra (Bizenta Mogel Biblioteka).

**11:35 Gymkhana: digitalizazioa jokoan.** Tailerra (Bizenta Mogel Biblioteka).

**12:00 BerPiztu ordenagailu zaharra.** Tailerra (Bizenta Mogel Biblioteka).

**10:30-20:00 II. Eskultura Azoka. Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarte.** Arkotxa kalea, 8. Erakusketa

**11:00-14:00/16:00-20:00 Nestor Basterretxea. Diseinatzaile grafikoa eta ilustratzailea. Arratsaldean bisita gidatuak. Izen ematea: durangomuseoa.eus Durangoko Museoa.** Erakusketa

**11:00-21:00 VII. Artisauen eta Sortzaileen Azoka. Eixu Artisau Elkarte.** Andra Mariko elizpe.

**11:00-14:30/16:30-20:30 28. Euskal Denda. Arbaso Elkarte.** Merkatu plaza

## ABENDUAK 6, BARIKUA

**11:00 Kutzaz kanpo: hemen pentsatzeari jolastu esaten diogu.**

Fikzio fabrika eta Badalab. Tailerra (Bizenta Mogel Biblioteka).

**11:00 "Hartzea ematea DA!" kartel sinatzea. Udatxo eta Balu.** Topaketa

**10:30-20:00 II. Eskultura Azoka. Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarte.** Arkotxa kalea, 8. Erakusketa

**11:00-14:00/16:00-20:00 Nestor Basterretxea. Diseinatzaile grafikoa eta ilustratzailea. Arratsaldean bisita gidatuak. Izen ematea: durangomuseoa.eus Durangoko Museoa.** Erakusketa

**11:00-21:00 VII. Artisauen eta Sortzaileen Azoka. Eixu Artisau Elkarte.** Andra Mariko elizpe.

**11:00-14:30/16:30-20:30 28. Euskal Denda. Arbaso Elkarte.** Merkatu plaza

**12:00 Egin eztanDA! Iehiaketa. Gerediaga Elkarte eta EuskarAbentura.** Lehiaketa

## ABENDUAK 7, ZAPATUA

**10:30-20:00 II. Eskultura Azoka. Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarte.** Arkotxa kalea, 8. Erakusketa

**11:00-14:00/16:00-20:00 Nestor Basterretxea. Diseinatzaile grafikoa eta ilustratzailea. Arratsaldean bisita gidatuak. Izen ematea: durangomuseoa.eus Durangoko Museoa.** Erakusketa

**11:00-21:00 VII. Artisauen eta Sortzaileen Azoka. Eixu Artisau Elkarte.** Andra Mariko elizpe.

**11:00-14:30/16:30-20:30 28. Euskal Denda. Arbaso Elkarte.** Merkatu plaza

**16:00 Hikadromoa: etorri hadi hika egitera! ZirHika, Badihardugu eta Bagera Landako ikastetxean.** Izen ematea: labur.eus/Hikadromoa2024

**19:30 Txistua XXI. mendean. Silboberri txistu elkarte. Kontzertua.** Jesuitak Ikastetxean (Arrupe aretoa)

## ABENDUAK 8, DOMEKA

**10:30-20:00 II. Eskultura Azoka. Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarte.** Arkotxa kalea, 8. Erakusketa

**11:00-14:00/16:00-20:00 Nestor Basterretxea. Diseinatzaile grafikoa eta ilustratzailea. Arratsaldean bisita gidatuak. Izen ematea: durangomuseoa.eus Durangoko Museoa.** Erakusketa

**11:00-21:00 VII. Artisauen eta Sortzaileen Azoka. Eixu Artisau Elkarte.** Andra Mariko elizpe.

**11:00-14:30/16:30-20:30 28. Euskal Denda. Arbaso Elkarte.** Merkatu plaza



Iazko irudia. GEREDIAGA ELKARTEA

## 59. Durangoko Azokak gaur zabalduko ditu ateak

**DURANGOKO AZOKA** Ikasle Goizagaz emango diote hasiera, gaur, lau eguneko egitarauari; 19:00etan, 'Hartzea ematea DA!' inaugurazio ekitaldia egingo dute, San Agustinen; Jon Irazabal Azokako zuzendari izandakoa gogoratuko dute bertan

**A. M. DURANGO**

Durangoko Landako Gunea eskal kulturazaleen topagune bihurtuko da beste urte batez. Durangoko Azokaren 59. edizioak gaur zabalduko ditu ateak, *Hartzea ematea DA* leloagaz. Ia mila nobedade aurkeztuko dituzte bertan, 933 hain zuzen ere, Landako Gunean egongo diren 274 erakus-

mahaietan; nobedade horietariko 639 liburuak izango dira, 216 musikari loturiko lanak, 47 aldizkariak, eta 31 bestelakoak. Horrez gainera, berrehun aurkezpen egongo dira, Talaia, Aho-senea, Irudienea, Kabia, Saganbara eta Szenatokia guneetan. Egitaraua osorik ikusteko, ANBOTOk egitaraua ikusgai utzi du

webgunean eta baita ale honetan ere. Azken asteetan, Beñat Gaztelurrutia Gerediaga elkarteko koordinatzaileak bertaratzeko deia egin die kulturazaleei. "Kulturazaleak katebegi garrantzitsua dira kultur sisteman, izan ere, haiek ematen diote egonkortasuna. Landakon bilduko gara kultura bizi eta zaindu gura dugun

sortzaile, argitaletzeko kide, kulturagintzako langile eta zaleak. Denak ditugu beharrezko", adierazi du Gaztelurrutia.

59. edizio honetarako, Durangoko Azokak 750.000 euroko aurrekontua izango du. Bestalde, Azoka Telebistak *Hartzea ematea DA* izeneko magazina ekoitziko du egunero, eta saioa hainbat kanalen bitartez ikusi ahal izango da: tokiko telebistetan, Durangoko Azokaren webgunean, Youtube eta ETBn, hain zuzen ere.

### Gazte Eztanda

Ikasle Egunaren ondoren, Gazte Eztanda egingo dute bihar, bariakua. Gazteei eskainitako egitarau berezian, aurkezpenak, lehiaketa eta kontzertuak egongo dira, besteak beste. Ekimenaren helburuetariko bat belaunaldi arteko transmisioa lantzea da, hartzea eta ematea, azokaren leloak dioen moduan, etorkizunean gazteek emango diote-eta arnasa euskal kulturari. Egunean zehar, LaburmetraDA film laburren maratoia, Ane Berriotxoaren eta Jone Arriolaren film laburren emanaldiak, Miren Amurizaren eta Garazi Albizuaren liburu aurkezpenak, eta Nizeren eta Xsakararen musika aurkezpenak egingo dituzte. Ohiko ekitaldiez gainera, beste ekintza bi ere antolatuko dituzte aurtun. 14:00etan, 15etik 25 urtera bitarteko gazteek Egin Eztanda! lehiaketan parte hartu ahal izango dute, lauko taldetan. Lehiaketa Landako plazako karpan

izango da, eta bertan planteatuko diren jolasek kultura gaiak izango dituzte ardatz. Gerediaga elkarteak eta EuskarAbenturak antolatu dute, elkarlanean. Gazte Eztandak gauz ere jarraituko du, izan ere, kontzertuak egongo dira karpan 22:00etan hasita: Durangaldeko Nekktar hirukoteak eta Naxker talde nafarrak zuzeneko emanaldia egingo dute, eta, ondoren, Xaukena Xauk musika jartzaile zaldibartarrek festa girotuko dute. Gazte Eztandara joan-etorria errazteko, antolatzaileek autobusak ipini dituzte Gasteizen eta Iruñean.

Domekara bitartean, Landako Guneak 10:30ean zabalduko ditu ateak, eta 20:00ak arte egongo da zabalik; abenduaren 8an, ostera, 18:00etan itxiko dute azoka. Bestalde, Durango kanpotik joatekoak diren bisitariei garraio publikoan joateko deia egin diete antolatzaileek. Landako Gunetik urruen dauden aparkalekuek bertaratzeko, doako autobus zerbitzua ipini dute, beste urte batzuetan legez. Azoka zabalik dagoen bitartean, autobusak gutxi gorabehera ordu erdiro irtengo dira Landakorantz.

**BIHAR GAZTE EZTANDA EGINGO DUTE, EGITARAUZ KANPOKO KONTZERTU ETA LEHIAKETEKIN**

## Basterretxearen lanak ikusgai bere jaiotzaren mendeurrenean

**ERAKUSKETAK** Nestor Basterretxearen 50 diseinu eta ilustrazio batu dituzte Durangoko Museoko erakusketan

**Aritz Maldonado** DURANGO

2024an 100 urte bete dira Nestor Basterretxea jaio zenetik, eta hainbat erakunde eta kultur eragilek jarduera programa oparoa prestatu dute artista omentzeko. Garazi Arrizabalaga Durangoko Arte eta Historia museoko zuzendariaren esanetan, artista bermeotarraren "alderdi desberdin" bat erakusten ahalginduko dira Durangon: diseinatzaile grafiko eta ilustratzaile alderdia, hain zuzen ere. "Gerediagaren proposamena jaso nuenean erakusketa anto-

latzeko, zeozer desberdina egingo gogoia piztu zitzaidan, Basterretxearen hain ezaguna ez zen irudi bat erakutsi gura nuen. Beheko solairuan dauden lanak ezagunak izan daitezke, hauetako asko kaleko hormetan itsatsita zeudela hazi garelako;

**HAINBAT JARDUERA ANTOLATU DUTE; BISITA GIDATUAK HILAREN 5ERAKO ETA 6RAKO**

bigarren solairuan, ostera, gehiago hurbilduko gara artistaren sortze prozesuetara. Basterretxeak eskuz lan egiten zuen, eta piezara edo lanera heldu aurreko ideiak eta metodoak ezagutuko ditugu", argitu du Arrizabalagak. Guztira, 50 lanek osatzen dute erakusketa, eta horietariko asko lehenengoz erakutsiko dituzte.

Basterretxearen jaiotzaren mendeurrena dela baliatuta, hainbat erakusketa eta tailer egin da Euskal Herrian zehar; Durangokoaz gainera, Bilboko Arte Ederren museoa eta Gasteizko Montehermoso kultur-gunean egin dituzte erakusketak, eta arte lantegiak eta sorkuntza tailerrak ere antolatu dituzte; esaterako, Arantzazuko kriptan eta Elgoibarko Makina Erreminta Museoa.



Erakusketa otsailaren 2ra arte egongo da ikusgai. DURANGOKO MUSEOA



# Iurretako euskarazko literaturaren lekukotza

**LITERATURA** Auzolanean sorturiko 'Iurretako berbeta eta literatura: sator hegalariai' liburua aurkeztu dute oraintsu; bilduma bost urtetako lanaren emaitza dela azaldu dute aurkezpenean, eta "memoria literario" ariketa bat dela; Pamielak kaleratu du

**Aritz Maldonado IURRETA**


Iurretako euskarazko ondare literarioa jaso eta zabaltzeko helburuagaz ekin zion lagun talde batek orain bost urte *Iurretako berbeta eta literatura: sator hegalariai* proiektuari; hasieran hain serio hasi ez zena "memoria literario" ariketa izan da, eta Pamiela argitaletxeak publikatu du. "Imajinatzen genuen baino altxor handiagoa topatu dugu, abesti zaharrak, ipuin miresgarriak, tokiko prentsako kronikak..." azpimarratu zuen aurkezpenean Xabier Bovedak. Joseba Sarrionandiagaz batera egin ditu editore lanak liburu honetan. "Testu zaharrak biltzeko asmoagaz hasi ginen; hainbat boluntario hasi ginen horretan, jaso barik zegoelako historian zehar Iurretan euskaraz idatzi dena", gaineratu zuen Bovedak. Besteak beste, testuek, marrazkiek eta argazkiek osatzen dute liburua. "Anekdoten hiztegi moduko bat ere osatu dugu,



Liburuaren aurkezpen ekitaldia.

esaera-hiztegi formatuan edo. Testuen aukeraketagaz, gaur egun 90 bat urte izango dituen baten ikuskera eta hizkera erakusten ditu liburuak, zelanbait esatearren", azaldu du Sarrionandiak.

Honi lotuta, datozen asteetan jarduerak egingo dituzte Iurretan. Abenduaren 17an liburuaren aurkezpen didaktikoa egingo dute Ibarretxe kultur etxean; eta apirilaren 23an irakurraldi publikoa egin gura dute.



Zelaieta zentroan dago ikusgai.

## Ertibil erakusketa ibiltaria, Zornotzan, urtea amaitu arte

**ERAKUSKETA** Erakusketak sortzaile gazteen lanak batzen ditu; abenduaren 30era arte dago ikusgai Zelaietan

**A. M. ZORNOTZA**

Gazte sortzaileen lanak batzen dituen Ertibil erakusketa ibiltaria Zornotzan dago, Zelaieta zentroan, hain zuzen ere. Eskultura, pintura, argazkigintza, bideoa eta zeharkako teknikak batzen dituzten lanak erakusten dituzte bertan. Erakusketa abenduaren 30era arte egongo da ikusgai.

Gazte sortzaileei beste artistekin harremantzeko aukera eskaintzea da erakusketaren helburua, baita ibilbide profesionalaren garapenean laguntzea ere. Aurtengo erakusketarako

hogei bat lan aukeratu dituzte, tartean Leo Burge, M. Benito Piriz, Lucia Jayo eta Martz zornotzarrenak.

**Bisita gidatuak**

Erakusketari buruzko xehetasunak hurbilagotik ezagutzeko, bisita gidatuak egingo dituzte hile honetan. Abenduaren 11n izango da lehenengoa, 10:30ean, euskaraz; biharamunean, ele bitan egingo dute beste bisita gidatu bat, 18:00etan. EHUko Arte Ederren fakultateko Oihane Sanchezek emango ditu azalpenak.



GAI LIBREAN

LIBE MIMENZA CASTILLO EHU-KO IRAKASLE IKERTZAILEA

## Ez denean ere

Da sortzeko patxada. Da lehen liburutik bigarrenera ahaztua izateko beldurra. Da pieza bakarra. Da kantu bati hamaika forma emateko jolasa. Da akorde trabatua eta sintetizadorea, biekin obsesionatzea. Da instant bat frame batean. Da izerdia. Da, erdizka, dantza-plaza hustu aurretik heltzea. Da errimategia lantzea. Da belaunaldi berriak agertokia hartzea. Da poza. Da 60 urteko ibilbidea. Da sei urtera, tatarrez, prekaritatez lepo zaudelako uztea. Da badabilena. Da ez etsitzea. Da ekitea. Da tematzea. Da antzezlan bat ikusteko hegoaldetik iparralderako bidaian nahi baino fikzio gutxiegi muga gurutzatzea. Da mendikate bat. Da hartzea eta ematea. Da artistaren lana edo langilearen artea. Da kultur politika sendorik gabe bizirautea. Da kultura gabeko kultur plan bat. Da bizitzea *a cappella*. Da poesia *queerra*. Da poema bat irakurtzeko komuneko eserialdia luzatzea. Da estresa. Da terapia kolektiboa. Da terapia ordaintzeko beste ez ateratzea. Da inprobisazioa. Da marraztea, ahal

denean. Da hiru urtean zortzi ipuin. Da bi urtean ehun emanalditik gora. Da urtean behin euskarazko pelikula batekin ez konformatzea. Da iaz, gutxienez, euskara hutsean sortzen duen 1.952 kulturgile agertzea komunikabideetan. Da hamasei dei galdu. Da bi bolo bariku gabaz. Da agenda huts bat. Da kobratu gabeko hilabete luzetan autonomo kuota kontrako eztarririk. Da iruzurgilearen sindromea. Da sariketa baten laidoa. Da film bat, gutaz mintzo dena. Da proposamen bat. Da fandango

**DA JAUSI BITARTEAN  
KANTA DAITEKEEN DOINUA.  
DA KULTURA HILAREN ETA  
BIZIAREN BIDE GURUTZEA.  
DA TRANSMISIOA**

baten osteko arin-arina. Da liburu-denda txiki bateko hitz eta pitz hori. Da iritsi nahi eta ezina. Da elkartzeko bulkada. Da Plateruena. Da edozein kafe antzoki. Da kontzertu bateko sarrerak ez agortzea. Da promes egitea. Da politeista. Da azoka formako lau eguneko pluralaren arrakala. Da bastarta. Da garenaren oraina. Da larrialdia. Da dabilen pentsamendua. Da mila eztarri batera ez tandan lehertzen. Da gaztetxe bira bat. Da erresistentzia. Da periferiako kulturgilea gonbidatzea ahaztu duelako damu den programatzailea. Da *Kanbodiako enbaxada* eta *Bihotz museo* bat zerrenda berean. Da zurtasunean ahots beltz bat. Da entzutea. Da beste *tote bag* bat ez, mesedez. Da ez isiltzea. Da komunak askotan garbitu eta erratza sarri pasatzea. Da herrigintza. Da entsegu gelan errepikatutako pleibak bat. Da jausi bitartean kanta daitekeen doinua. Da kultura hila eta biziaren bidegurutzeta. Da transmisioa. Da gorputz askorentzat etxe bat norberarena. Da euskal kultura.

JOSEBA DERTEANO ZALDIBAR

Ruben Perezek Euskadi Fundazioan egin zuen bere txirrindularitza ibilbide osoa; Orbea taldean lehenengo (2005), eta Euskaltel-Euskadin gero, 2006tik 2013ra. Kirol zuzendari lanetan, Burgos-BH eta Euskadi Murias talde profesionaletan aritu da, eta Cafe Baqueren talde amateurrean. Orain Euskaltel-Euskadira bueltatu da. Jorge Azanzaren gidaritzapean arituko da, Pablo Urtasun eta Santi Barrancogaz batera.

**Zelakoa izan da itzulera?**

Oso sentsazio polita da. Dagoneko egonaldi txiki bat egin dugu Elgoibarren. Txirrindulariekin eta langile taldeko kideekin egoteko aukera izan dut. Gero, egutegia antolatzeko, hainbat bider batzartu naiz Azanzagaz, Urtasunegaz eta Barrancogaz. Elkar ondo hartu dugu. Denok antzerako izaera dugu eta asko igartzen da. Hizkuntza bera berba egiten dugu. Burgos BH taldean ez nuen sentipen berdina. Orain arteko esperientzia oso ona izan da eta pozik nago.

**Txirrindulari zinenean, Azanza eta Urtasun taldekide izan zenituen hainbat urtean. Aurretik elkar ezagutzeak laguntzen du?**

Bai, jakina. Hirurok sasoi berean ibili ginen Euskaltel-Euskadin. Gainera, lagunak ginen. Denboran iraun duen lotura bat sortu genuen. Txirrindularitza utzi eta gero ere bat egin dugu sarritan, ni Burgos taldean, Urtasun Kern Pharmeda eta Azanza Euskaltelen geundean.

**Zehaztuta dago zure egutegia?**

Mallorcan hasiko naiz. Gero, Valentziara joango gara. Baliteke tanta hotzagaitik datak aldatzea, baina egingo dela ematen du. Ondoren, Frantzia aldean ibiliko naiz.

**Zeintzuk dira taldearen helburu nagusiak?**

Aurten 39. tokian geratu gara. Taldean egon direnak kritikoak izan dira denboraldiagaz. Ez daude pozik iazkoagaz, eta buelta eman gura diogu egoera honi. Urtasun eta biok taldera batzea zuzendaritza arloa indartzeko ahalegina da, txirrindularien gain-gainean egon gaitez. Ez dugu iazkoa errepikatzea gura. Aurten 40 onenen artean geratu gura dugu 2025eko World Tourreko lasterketak lehiatzeko, baina, 2026koetan parte hartu ahal izateko, 30 onenen artean egon behar dugu. Aurten atera

# "Iazkoa ez dugu errepikatu nahi; buelta eman gura diogu egoerari"

**RUBEN PEREZ MORENO (ZALDIBAR, 1981) EUSKALTEL-EUSKADIKO KIROL ZUZENDARIA**

Ruben Perez Euskaltel-Euskadiko kirol zuzendaritza taldera batu da aurten, Pablo Urtasunegaz batera. Bien eskarmentuagaz beste aupada bat eman gura diote taldeari



Ruben Perezek ziklista batzuen jarraipena egingo du, tartean Mikel Bizkarrarena.

ditugun 1.400 puntuekin kanpoan geratuko ginatke, ehuneko ehunean. 3.000 inguru beharko ditugula kalkulatu dugu. Horretan zentratuko gara.

**Zeintzuk dira errendimendu horretara heltzeko gakoak?**

Ez dago alderdi bakar bat. Engranaje osoak funtzionatu behar du. Iaz, manager aldaketagaz, apur bat trabes hasi zuten denboraldia, eta batzuetan ez da erraza egoerari buelta ematea. Aurten ondo gaude hasieratik. Dena ondo doa eta ezin gara kezatu. Orain ondo pentsatu behar dugu egutegia, eta lasterketa bakoitza zein txirrindulari eraman. Gero, txirrindularien gainean egon behar dugu; estutzen barik, animatzen, motibatzen eta eurekin gaudela sentiarazten, eta ez polizia lanetan.

**Espainiako Itzulian egotea da urteko helburu nagusietariko bat?**

Horretarako, 40 onenen artean egon behar dugu, eta bagaude. Orain, euren esku dago zein talde gonbidatu. Gauzak ahalik eta ondoen egiten ahaleginduko gara, geu izateko aukeratuak.

**Euskaltel-Euskadik bere mugak zabaldu ditu David Dekker eta Danny**

**"AURTEN ONDO GAUDE HASIERATIK; ORAIN EGUTEGIA ONDO PENTSATU BEHAR DUGU"**

**van der Tuuk herbeheretararak, Paul Hennequin frantziarra eta Louis Sutton britainiarra fitxatuta. Zergaitik pauso hori?**

Txirrindularitza asko konplikatu da. Lehen, euskal txirrindularirik onenekin nahikoa izan zitekeen. Orain Kern Pharma eta Cajar Rural taldeak ere badaude, nafarrik biak, eta eurekin lehiari zabilta. Gero, Movistarrek onenak hartzen dizkizu, edo, bestela, World Tour taldeetara doaz. Bestela, begiratu euskal txirrindularirik onenak non dauden. Gu ezin gara World Tourreko talde bategaz lehiari sartu. Txirrindulari batzuek kobratzen dutena gure talde osoko aurrekontua da. Testuinguru horretan, 3.000 puntu lortu gura baditugu, mugak apur bat zabaldu behar ditugu.

**Taldera batu diren ziklista gazteek zer eskaini dezakete?**

Ander Ganzabal zaildutako ziklista da, harrobikoa. Fisikoki prest dago, baina lehenengo urtean ezin zaio helburu handirik ipini. Bere garapena ikusi gura dugu. Batez ere, itzuliak lehiatuko ditu. Louis Suttonek 22 urte ditu. Aurten Bidasoako Itzulia irabazi du. Ziklista nahiko konpletoa da. Aurten profesionalekin lehiatu da, 2,2 kategoriako lasterketetan, eta kalitatea baduela erakutsi du. **Euskadi Murias taldean Mikel Bizkarraren zuzendaria izan zinen eta orain berriro elkartu zarete Euskaltel-Euskadin.**

Mikel pertsona erraza da tratutarako. Ez dago bere gainean egon beharrik, txirrindularitza pasio duelako. Zorionsua da bizikleta gainean. Azkenaldian zorte txarra izan du lesioekin. Ea aurten zorte hobea duen. Neuri dagokit bere jarraipena egitea, eta konfiantza handia dut berarengan. Nire txirrindularitzako azken urtean bera gazte-gaztea zen. Orduan ere eskalatzaile fina zela gogoratzen dut, baina denboragaz asko hobetu du.

**Urteak joan ahala, zuk zeuk ere hobetuko zenuen kirol zuzendari lanetan. Denborak zer irakatsi ditu?**

Batetik, txirrindulari bat ondo zuzentzeko berarengana heltzen asmatu behar duzula ikasi dut. Konfiantza eraiki egin behar da. Eurekin arlo psikologikoa lantzea ere inportantea da. Izan ere, batzuetan gorputzak gehiago eman dezake, baina buruak ez du uzten. Gero, arlo teknikoan, oso garrantzitsua da lasterketak zorrotz aztertzea eta ziklistari informazioa ondo helaraztea.



# Aingeru Bernaola, Olazarreko finalaren bila

**PILOTA** Gaur Olazar txapelketako lau eta Erdiko finalerdi biak lehiatuko dira. Hurrengo eguen bietan binakakoen txanda izango da. Abenduaren 12an, Aingeru Bernaola mañariarrak eta Karregalek Fernandezek eta Lozaren kontra jokatu dute

**Joseba Derteano** ZALDIBAR

Etorkizuneko Olazar pilota txapelketa finalerdietara heldu da. Datozen hiru eguenetan erabakiko dira finalistak Zaldibarko pilotalekuan. Jardunaldi guztiak 21:00etan hasiko dira.

Gaur lau eta Erdiko finalerdi biak jokatu dira: O. Etxeberria Ibarluzearen aurka, eta Apaolaza Rekalderen kontra. Ez dago faborito argirik. Etxeberria eta Apaolaza errematatzaileagoak dira eta Ibarluzea eta Rekalde botera jokatzeko joera handiagoa dutenak.

Hurrengo aste bietan lau finalerdi jokatu dira: gizonen binakakoak eta emakumeen lau eta Erdikoak. Emakumeen txapelketa orain hasiko da, lau parte hartzailegaz.

**Bernaolaren aukera**

Abenduaren 12an Aingeru Bernaola mañariarrak jokatu du, Karregalegaz bikotea osatuta. Fernandez-Loza bikotea izango



Olazar txapelketako final-laurden bateko irudia.

dute aurrez aurre. Adituek bete-beteko partidua itzaroten dute. Atzeko koadroetan Bernaolak ez du edonolako aurkaria izango. Lozak urteak daramatza Aspe enpresaren orbitan, eta profesionaletan debutatzeko hautagaien

artean dago. Baina hori, oztipoa barik, aukera on bat da Mañariako atzelariarentzat. Lozari hartzak erakusteko kapaz bada, seguru Olazar gertutik jarraitzen duten enpresa profesionaletako ordezkariak kontuan hartuko

dutela. Final-laurdenetan, Bernaolak sasoi onean dagoela erakutsi zuen. Asko atzeratu zuen pilota, eta, defentsan, pilota zailak eraman zituen zabalera nahiz txokora korrikaldi biziak eginda. Emakumeetan Leire Garaik eta Laia Salsamendik neurtuko dituzte indarrak.

**19ko finalerdiak**

Abenduaren 19ko binakako partidua honako hau da: Eguieren eta Landa Lizeagaren eta Azpirozaren kontra. Bikote biak sasoi onean daude eta ez dago faboritorik. Emakumeen bigarren finalerdi Gouiuri Zabaletaren eta Madalen Etxegaraireren artekoa da. Zabaletak, beharbada, Master Cup Laboral Kutxako lau eta Erdiko txapelkun dela jokatu du Zaldibarren. Izan ere, lau egun lehenago, abenduaren 15ean, finala jokatu du Amaia Aldairen kontra. Leitzarrak 15 urte baino ez dituen arren, onenen artean dabil, eta, gainera, bereziki eroso sentitzen da kaiolan.

**Zuzeneko emankizunak**

Finalerdi guztiak zuzenean ikusi ahal izango dira *anboto.org* webgunean. Koldo Aldalur edo Haritz Gallastegi arituko dira esatari, eta Enrike Agirrebeitia komentaria. Antolatzaileek egindako saiok kalitatezko errealizazioa dute: hainbat kamera, errepikapenak, datuak, elkarrizketak... Finalak abenduaren 31n izango dira, urtero legez.

## Mallabiak Urrezko Aizkolariaren Kopa hartuko du

**AIZKORA** Bariku eguerdian goi mailako sei aizkolari lehiatuko dira Mallabiko pilotalekuan

**J.D. MALLABIA**

Mallabiko pilotalekuak Urrezko Aizkolariaren Kopa hartuko du barikuan, 12:00etan hasiko den jaialdian. Mallabiko Udalak antolatuta du ekimena eta sarrera doakoa izango da.

Sei aizkolari lehiatuko dira: Txomin Amundarain, Hodei Ezpeleta, Ugaitz Mugertza, David Naredo, Ibai Soroa eta Julen Alberdi.

Ez da eguneko txapelketa bakarra izango. Binakako Aizkolari Kopako finalerdiak ere jokatu dira emakumeetan eta gizonen gazte mailan. Emakumeetan, Karmele Gisasola *Zelai III.a* eta Uxue Ansorregi Lucia Orberen eta Malen Barreneixeren kontra arituko dira. Gazte mailan, Igoien Pikabeak eta Beñat Senosiainek Unai Etxebarria eta Kimetz Oñederra izango dituzte aurkari. Azkenik, Binakako Harrijasotze Kopa ere lehiatuko dute emakume nahiz gizonetan.

## JOKALDIA



**DANI NUÑEZ MORALES** KICKBOXING ETA BOXEOA

## Gero eta familia handiagoa

Gero eta familia handiagoa gara. Gorakada ez da berria, hainbat urteko joera baizik, baina aurtengoak harrituta gauzka. Elorrioko gimnasioa lepo dugu, Durangokoa ere beteta, eta Berrizkoan ez dabilta atzetik. Arte martzialak modan daude, nagusi, gazte nahiz umeen artean. Boxeoan Kerman Lejarraga eta Jon Fernandez, eta kickboxingean Sergio Sanchez inspirazio iturri izan dira askorentzat. Ilia Topuriaren gorakada eta UFC txapelketaren oihartzuna izan daitezke beste arrazoi bi. Batagatik edo besteagatik, arte martzialak maite ditugunontzat sasoi onak dira.

Ikasle beste motibazio aurkitu dezakegu. 'Familia' berba darabilt eta ez da kasualitatea. Denak ez datoz txapelketa buruan dutela. Batzuek euren burua proban jartzea, gustuko duten kirola praktikatzea eta ondo pasatzea dute helburu. Giro atsegin batean daude, familia giroan, eta bila zebiltzan lagunartea eta kirola aurkitu dituztela sentitzen dute. Guretzat horixe da saririk

**"BATZUEK EUREN BURUA PROBATZEA ETA GUSTUKO DUTEN KIROLA PRAKTIKATZEA DUTE HELBURU"**

**"ABENDUAREN 13AN GERRIKO BELTZA LORTZEKO AZTERKETA EGINGO DA ELORRIOKO GIMNASIOAN"**

onena, ez dago horrebesteko balioa duen gerririk. Beste askori, betidanik amesten zutena egia bihurtzen laguntzen diegu: ringera igotzea edo Euskadiko txapelketa batera joatea. Den-denak txapelkunak dira guretzat.

Maila profesionalean, harro egoteko moduko arrazoiak ditugu eskualdean, Aitor Romerorekin. Esaterako, abenduaren 21ean beste borrokaldi profesional bat izango du, gerrikoa tarteko. Urteetan egindako lanaren fruituak jasotzen ari da garaitarra, baina ez da konformatzen, eta egunetik egunera hobetzeko anbizioarekin dabil. Eta gu, zelan ez, bera babesten egongo gara.

Anbizioa eta ilusioa, bietarik izango dute abenduaren 13an Elorrioko IndarXSport-en gimnasioan batuko direnek. Egun horretan gerriko beltza lortzeko azterketa egingo da bertan. Euskadiko hainbat taldetako kirolariak etorriko dira. IndarXSport eta Laureano Lara Team taldeetatik hamar ikasle aurkeztuko ditugu. Zorte on denei!

## KOMIKIA



## GUARDIAKO BOTIKAK

**ABENDUAK 5 - EGUENA**

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

**ABENDUAK 6 - BARIKUA**

09:00-09:00

Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

**ABENDUAK 7 - ZAPATUA**

09:00-09:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

**ABENDUAK 8 - DOMEKA**

09:00-09:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

**ABENDUAK 9 - ASTELEHENA**

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

**ABENDUAK 10 - MARTITZENA**

09:00-09:00

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

**ABENDUAK 11 - EGUAZTENA**

09:00-09:00

Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

**ABENDUAK 12 - EGUENA**

09:00-09:00

Bazan, Uribarri 5 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: [www.anboto.org/botikak](http://www.anboto.org/botikak)

## ZORION AGURRAK



BERRIZ

**Lier Belerdas**

Abenduaren 3an, 3 urte. Berrizen bizi dan Lier Belerdasek 3 urte egin zituen abenduaren 3an. Zorionak bere anaia Gari, lehengusina Izaro, eta, batez ere, amama Maribiren partez.



DURANGO

**Urko Aranzabal Manzidor**

Azaroaren 21ean, 4 urte. Zorionak, Urkotxo! Jarraitu hain alai eta xeibre izeten! Askok gure zaitugu! Mosu erraldoi bat!



Izar

Abenduaren 5ean, 5 urte. Abenduaren 5ian 5 urte egingo dauz etxeko txikitxak. Zorionak, Izar!

**GOZATU GOZOTEGIA**  
 Ermodo, 11 DURANGO  
 Tel.: 946 201 663 / 661 40 14 00  
 gozaturango@gmail.com  
 f Gozatu Gozotegia  
 gozaturangozotegia

## Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

**Internet**

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta [Anboto.org/zorionagurrak](http://Anboto.org/zorionagurrak) helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

**Posta elektronikoa**


Mezua bidali [zorionagurrak@anboto.org](mailto:zorionagurrak@anboto.org) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

**Ordezkaritzak**

Etorri zaitzez Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

## EGURALDIAREN IRAGARPENA

## Barikua, 6



## Zapatua, 7



# GAER DESINFEKZIOAK

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

# DIBA

KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



## INMOBILIARIAK



C.E.E= E 265.000 €

**DURANGO** 89 M2. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Terraza. Trastelekua.



212.000 €-TIK AURRERA

**ETXEBIZITZA BERRIA** 2 eta 3logelakoak. Garajea eta trastelekua.



C.E.E= E 143.000 €

**DURANGO** Atikoa. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Guztiz berriztatua. Bizitzin sartzeko moduan.



C.E.E: F 170.000 €

**LURRETA** 70 M2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Berogailua. Igogailua. Hegoaldea.



C.E.E= F 470.000 €

**BASERRIA** GUZTIZ BERRIZTATUA. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa su baxuarekin. 4 hektareako basoa.



### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### DURANGO

**Askatasun etorbidea:** 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

**Pinondo:** Logela biko atiko ederra. Sukaldea eta komuna. 50 m<sup>2</sup>-ko lokalarekin batera salgai.

**Barrenkalea:** Logela bateko apartamentua. Sukaldea, egongela, eta komuna. Trastelekua.

**Tabira:** 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Oso argitsua.

#### BERRIZ

**Berriz:** 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta tra stelekua.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

#### ATXONDO

**Atxondo:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

#### LURSAILAK SALGAI

**Tabira:** 1.445 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

**Iurreta:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

#### BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**Abadiño:** Etxezurin kokatua. 300 m<sup>2</sup>. Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara.

**Berriz:** Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

**Berriz:** Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

**Atxondo:** Axpe. Baserri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

**Mañaria:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m<sup>2</sup> solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**Mendata:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

#### BULEGOAK ALOKAIKIRUAN

##### ABADINO

30 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

#### GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

#### LOKALAK ALOKAIKIRUAN

Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

#### LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

**Matiena:** 460m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.



C.E.E: E. 119.000 €

**DURANGO** San Fausto: 48 m2. Egongela-sukaldea, 2 logela eta komuna. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-ekialdea) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta herriko sarreratik gertu. ITE-a pasatutakoa.



C.E.E: F. 189.000 €

**DURANGO** Anboto: 69,80 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia. Egoera onean. Etxe erdiak kanpora ematen du (iparraldea) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak gertu. ITE-a pasatutakoa.




C.E.E: E. 310.000 €

**DURANGO** Askatasun Etorbidea: (1.991. urtean eraikia): 88 m2. Halla, egongela, sukaldea, despentsa, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-iparraldea) Argitsua. Zonalde berdeak inguratuta eta zerbitzuguneak gertu. Herriko sarrera/irteeratik gertu. Egoera onean. Ganbara eta garajea. Bigarren garajea erosteko aukerarekin + 20.000 €



C.E.E: E. 168.000 €

**LURRETA** Zubiaurre: 66,43 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, despentsa eta komuna. Egoera onean. Pisu altua. Argitsua. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Banaketa berri bat egiteko aukerarekin. ITE-a pasatutakoa.



C.E.E: E. 204.500 €

**MATIENA** Laubideta: 66,83 m2 útiles. Sukaldea amerikarra, egongela, 3 logela eta komuna duxarekin. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Argitsua. Egoera onean. Zonalde lasaia, herriko sarrera/irteeratik gertu. Etxebizitatzatik gertu dagoen garajea erosteko aukera dago. + 16.000 €.



### BERRIAK

#### DURANGO

**Frantzisko Ibarra:** 4 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. 335.000 €/ E.E.Z=E

#### DURANGO

**Askatasun Etorbidea:** 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

**Barrenkalea:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatuko. **LEHEN 150.000 € / ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

**Barrenkalea:** Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

**Bartolome Ertzilla kalea:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara. **Lehen 170.000 € - Orain 159.000 € / E.E.Z=E**

**Juan de Olazarán:** 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

**Komentu kalea:** 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

**Montorreta kalea:** 3 solairuko pabilioia. 1309 m2 inguruko azalerarekin. **728.000 € / E.E.Z=Salbuetsita.**

**Santikurutz Kalea:** Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m<sup>2</sup>-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € / ORAIN 495.000 €**

#### ABADINO

**Dendarikoa:** Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**

**Eskolako:** Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **325.000 € / E.E.Z=G**

**Txanporta plaza:** Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**

#### BERRIZ

**Murgoitio auzoa:** Berreraikitze baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

**Eitua:** Berreraikitze baserria lursailarekin. **350.000 €**

#### GARAIA

**Momoitio auzoa:** Etxebizitza eraikitze lursailak. Aukera ezberdinak.

#### LURRETA

**Bixente Kapanaga:** Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **95.000 € / E.E.Z=F**

#### LZURITZA

**Elizalde auzoa:** 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000 € ORAIN 570.000 € / E.E.Z=E**

#### GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKU

Durango eta lurretan, aukera desberdinak.

#### LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI

Informazio gehiago bulegoan.





LAU-HORTZA

MARKEL SANCHEZ  
ZELAIA

## Autobusean

Hori ez da ospitalera doana, esan dio jubilatuta batek besteari, Magdalenako geltokira ailegatu eta ilaran ipini naizenean. Egunero autobus bera hartzen dugunok ez dugu elkar agurtzen. Hasi gara igotzen, lekua hartu eta nire alboan jesarri denak izerdi usaina dauka.

Atzo, nik. Mugikorra atera dut, eta gaur goizean bertan entregatu behar dudana zutabe hau idazten hasi naiz. Nire aurrekoa maitasun mezuak bidaltzen ari da whatsapppe, emotikono gehiegirekin. Ikasle bat unibertsitateko lanak egiten dabil. Institututik piper egiten duten bi nerabe daude, eta Iurretara ailegatu garenean, kristalaren atzean salbu sentitu eta jendeari erdiko atzamarra erakusten entretenuz. Liburu bat atera du beste batek. Nire atzekoari aurikularrak deskonektatu zaizkio, eta musika kontzertua eduki dugu konturatu den arte. Ez du, halere, albokoaren sorbaldan lo doana esnatu. Autobidean, kontrako noranzkoan, auto-ilara sortzen ari da. Kristaletik begiratu diegu autoetan gelditu eta haserre daudenei. Auto indibidualak hautu indibiduala dakar beti, askatasun trazako kondenan.

Nerabeak autoei erdiko atzamarra ateratzen hasi dira. Beste guztiok, elkarri begiratu eta gero, gauza bera egin dugu.

Egunero autobus bera hartzen dugunok ez dugu elkar agurtzen, konfiantza dagoelako.

AKUILUA

# "Argazkigintzako Goya Saria lortzea dut erronka"

ALEX DE PEDRO IZAGUIRRE ARGAZKILARIA

la hiru hamarkada dira Alex De Pedro (Zornotza, 1980) ezkontzetako argazkiak egiten hasi zela. Azaroan, Espainiako Quijote saria irabazi du, ezkontzen atalean

Aitziber Basauri ZORNOTZA

Alex de Pedro aitaren eskutik hasi zen argazkigintzan, 15 urte gaz. Harrezkero, biak bidelagun izan dira argazkigintzan. Irudi Profesionalen Espainiako Federazioak izendatuta, Argazkilaria Maisuak dira biak. De Pedro argazki dendako apaletan, urteotako sari zerrenda luzea dago erakusgai. Amaren eta emaztearen lana ere nabarmendu du.

**Argazkilaria familia bateko bigarren belaunaldia zara.**

Bai, aitaren eskutik egin dut bidea argazkigintzan. Asko jaso dut berarengandik. Gainera, biok beste argazkilaria batzuekin trebatu gara. Bera ere izendatuta zegoen Quijote Sarietan, paisaien atalean. Ez dugu lortu biok saria ekartzea. Itzela izango zen!

**Zelan hartu duzu Quijote Saria?**

Hiru argazki aurkeztu nituen, eta nire ustez aukera gutxien zuenagaitik eman didate saria. Gainera, banuen argazki bat irabazteko faborito, eta ez zen nirea. Sorpresa handia izan zen.

**Ezkontzetan lan egin duzu bakarrik?**

Ezkontzetan ibiltzen gara gehien. Baina denerik egiten dugu: jaioberriei argazkiak, gabonetako kanpainak... Publizitate lanekin ere asko gozatu dut; hainbat



De Pedro, Quijote sariagaz. VICTOR LA FUENTE

sari lortu dut. Noizean behin, egindako lana ondo dagoela esatea eskertzekoa da. Ezkontzak gure egunerokoa dira; ahalik eta intentsiorik onenagaz ateratako argazkiak dira, baina ez dira prestatutako zerbait, inoiz



Saritutako argazkia. ALEX DE PEDRO

lehiaketa batean aurkezteko. Lan hori ondo dagoela esateak badu balio erantsi bat.

**Zelan definituko zenuke zure lana?**

Geroago eta gehiago lan dokumentala dela uste dut. Are gehiago ezkontzetan; gertatu den guztia ahalik eta ondoen dokumentatzea da gure lana. Prestatze lanekin hasi eta eguna amaitu arte. Argazkietan eurak diren moduan islatuta agertu daitezten gura dugu; ez guk ipinitako jarreraren batean. Horretan ahalegintzen gara. Egun horretan oso urduri egoten dira. Estres, barre eta emozio momentuak dira.

**Bizi izan duzu pasarte berezirik?**

Ezkontza bakoitzean dago zerbait. Dena dela, familia baten eboluzioa ikustea da politena, eta eurentzat garrantzitsua den egun edo une horren parte izatea. Tokatu izan zait hiru belaunaldi erretratatzeko.

**Zer ezin da falta argazki batean?**

Sentimendua. Argazkiak zerbait esan behar digu, zerbait eragin.

**Asko eboluzionatu da ezkontzetako argazkigintza?**

Guztiz aldatu da. Askoz ere aukera gehiago dago orain. Argazki kopuru mugagabea duzu eta horrek joko handia ematen du. Ezkontzak ere asko aldatu dira. Eskutik lotuta doaz. Askoz gehiago lan egiten dugu. Baina emaitza askoz hobea da.

**Zer erretratatu gura zenuke?**

Aitak dioen lez, bihar aterako dudana hori, hobetzen joateko. Hala ere, atzerrian ezkontzaren batean argazkiak atera gura nituzke: Parisen, Londresen...

**Zein da orain duzun erronka?**

Argazkigintzako Goya Saria lortu gura nuke, otsailean. Aitak 2019an lortu zuen, ezkontzen atalean.

AgroPaper®  
NEKAZARITZA  
JASANGARRI BATERAKO  
NEGUTEGIA